

#49 / 2024 APIRILA

arteka

**KOMUNISTAK ETA
PARLAMENTUA
AURREZ AURRE**

GEDAR

— **P**arlamentarismoaren inguruko eztabaida, ikuspegi komunista batetik, Munduko Iraultza Sozialistaren strategiaren mende baino ezin da ebatzi. Hori falta bada, ez dago balio duen eztabaidarik. III. Internazionalaren barruan aurrez aurre zeuden posizioen jatorria eta azalpena da – nahiz eta ez den hala azalpena agortzen– munduko iraultzaren garapen-egoera desberdina zela herrialde batetik bestera. Iraultza boltxebikea, lehenik eta behin, kolpe politiko-militar gisa gertatu zen (I. Mundu Gerrako krisi belikoaren ondorioz estatua desagiten ari zen egoera batean), eta, aldiz, Mendebaldean, antzeko testuinguru beliko batean, baldintza iraultzaileak zertxobait ezberdinak ziren: ibilbide demokratiko luzea duen masa-antolakuntza proletario zabalak (kapitalismoaren garapen zabalagoaren eta proletarioen esperientzia metatu handiagoaren ondorio) atea ireki zion beste termino batzuen gainean eraikitako konfrontazio iraultzaile bati eta demokrazia eta ordezkagarritasuna zentzu proletarioan zabaltzeari, komunismoaren printzipio garatuagoekin bat etorriz.

Edukia

6

EDITORIALA

Arteka

Parlamentarismoa eta iraultza

10

KOLABORAZIOA

Alex Fernandez

Komunismoa eta Parlamentarismoa

26

KOLABORAZIOA

Mikel Kaltzakorta

Berriz betikoek irabaziko dute: hauteskunde testuinguruari buruzko zenbait hausnarketa

40

ERREPORTAJEA

Arteka

Bala eta botoen artean: botere politikoa hartzeko taktika komunista

60

IRITZIA

Lurdes Ondaro

Erabaki

62

**HISTORIA
ERREPORTAJEA**

Nahia Santander

Sozialistak eta botoak: errepaso historiko bat parlamentarismoaren auziari buruz

Parlamentarismoa eta iraultza

Editoriala

1905a zen. Errusian iraultza piztu zen. Langileak eta nekazariak kalera irten ziren; grebak, matxinadak eta etengabeko protestak antolatu zituzten, eta hainbat egun eta hilabete iraun zuten. Horren ondorioz, Nikolas II.a Tsarrak monarkia konstituzional bat ezartzeko eta 1906ko Lehen Dumara deitzeko konpromisoa hartu zuen, eta hauteskunde demokratikoetara deitzea zekarren horrek. Boltxebikeek, Lenin buru zutela eta lehen iraultza horrek ustekabeen harrapatu zituela, hauteskundeetan ez parte hartzeke eta boikota egiteko deia luzatu zuten.

1907an, iraultza jada itzalirik zegoela eta iraultzaileek kaleak masiboki utzita, Bigarren Dumara deitu zuten. Boltxebikeek parte hartzea erabaki zuten. Duma laburra izan zen, hilabete gutxikoa. Hura desegin zedila eta ministro boltxebikeak atxilotu zitazela agindu zuen Tsarrak, azken horiek tribuna parlamentarioa iraultzara deitzeko erabiltzen zutelara argudiatuta.

Zerbait aldatu zen bi urtean. 1905ean, iraultzaren goren une bete-betean, boltxebikeek boikot parlamentariora deitu zuten; 1907an, berriz, iraultza

1905ean, iraultzaren goren une bete-betean, boltxebikeek boikot parlamentariora deitu zuten; 1907an, berriz, iraultza atzera-egite bete-betean zegoela, hauteskunde parlamentarioetan parte hartu zuten. Hala ere, gertaera horiek badute ildo nagusi bat: boltxebikeen parte-hartzea beti egon zen aukera iraultzaileei lotuta

tza atzera-egite bete-betean zegoela, hauteskunde parlamentarioetan parte hartu zuten. Hala ere, gertaera horiek badute ildo nagusi bat: boltxebikeen parte-hartzea beti egon zen aukera iraultzaileei lotuta. Ez zuen zentzurik parlamentuan parte hartzera eta hura legitimatzera deitzeak masak iraultzara jotzen ari ziren garai batean. Hala ere, atzera-egite egoera batean, 1907an, parte hartzera deitu zuten, baina beti helburua iraultzan jarrita. Horren adibide da parlamentuko kide hautetsiek tribuna iraultzaren aldeko propaganda eta agitazioa egiteko erabiltzen zuten bitartean, boltxebikeek talde armatu antolatua zituztela kolpe politikoa gauzatzeko. Horregatik desegin zuten Bigarren Duma eta boltxebikeak atxilotu.

Estrategia boltxebikean, auzi parlamentarioa iraultzaren mende egon zen beti. Hala izan zen 1920an III. Internazionalaren inguruan izandako eztabaidetan ere. Eztabaida horietatik, ondare gisa geratu da Leninen *Ezkerkeriaren gaitz infantila komunismoan* idatzi ospetsua. Kasu horretan, eztabaidaren testuingurua ez zen jada Errusiako iraultza boltxebikea gauzatzeko zeregin gisa, baizik eta Europan zehar jendarteratu eta hedatu beharreko iraultza gisa. Zeregin horren mende zegoen Leninek parlamentuan parte hartzea defendatzea.

Aipatutako edozein kasutan, kontua ez zen parlamentuan parte hartzeari buruzko erabakia hartzea, iraultzarik gabeko testuinguru batean. 1905 eta 1907 artean masen artean gogo iraultzailearen atzera-egite bat izan bazen ere, bi urte horietan, iraultzaren zentzuan bultzatzeko gaitasun militarrek antolatu zituzten boltxebikeek. Epe horretan, parlamentuko agitazioak lagundu egin behar zuen kaleen konkista eta greba masiboak berriz ere jendarteratzeko; eta, boltxebikeen arabera, egoera iraultzaile batera eraman behar zuten horiek guztiek. Horregatik, estrategia iraultzaile bati erantzuten zion estrategia parlamentarioak. Parlamentuko parte-hartzearen helburua ez zen, inola ere, instituzioak kudeatzea, proletarioentzako hobekuntzak lortzea, edo sozialdemokrata kontrairaultzaileek gaur egun “bitartean” esanez justifikatzen duten hutsune bat betetzea. Izan ere, ez diote berariazko erantzunik ematen “bitartean” horri, baina aski ezagutzen ditugu horren inplikazioak: “bitartean” iraultzaren aurkako lanak egitea, iraultza ezinezko bihurtzea

Estrategia iraultzaile bati erantzuten zion estrategia parlamentarioak. Parlamentuko parte-hartzearen helburua ez zen, inola ere, instituzioak kudeatzea, proletarioentzako hobekuntzak lortzea, edo sozialdemokrata kontrairaultzaileek gaur egun “bitartean” esanez justifikatzen duten hutsune bat betetzea. Izan ere, ez diote berariazko erantzunik ematen “bitartean” horri, baina aski ezagutzen ditugu horren inplikazioak: “bitartean” iraultzaren aurkako lanak egitea, iraultza ezinezko bihurtzea

Parlamentarismoari buruzko eztabaidak ez zuen interesik komunistek iraultza gauzatzeko gaitasun antolaturik ez zuten lekuetan eta boterea hartzeko baldintzarik ez zegoen tokietan, eta burgesiaren instituzioetan parte hartzea ez zen aukera bat ere

Egoera antzekoa zen 1920an. Errusiako Iraultza, boltxebikeen buruetan, Munduko Iraultza piztu behar zuen lehen txinparta bezala jaio zen, eta zeregin horri erantzuten zion III. Internazionalak. Horren inguruan izandako eztabaidek iraultza mundu mailan hedatzea zuten helburu. Parlamentuko parte-hartzea zeregin handi horren mende geratzen zen. Helburua, beste behin ere, iraultzaren alde agitazioa egitea zen. Eztabaida, beraz, hauxe zen: parlamentuan parte hartzeak iraultzaren aldeko bultzada ahalbidetzen zuen ala ez. Hor sortu zen “ezkerkeria”: testuinguru iraultzaile batean instituzioetan parte hartzera deitzea kaltegarria zela uste zutenak definitzen zituen adierazpena. Defendatzen zuten ordena burgesaren legitimazioa izango zela horren emaitza, eta ez hura desagitea.

Horrela, bada, parlamentarismoaren inguruko eztabaidak, III. Internazionalaren baitan, iraultza gauzatu ahal izateko nazioarteko batasun estrategikoaren beharrari erantzuten zion, iraultza kolpe militar gisa eta Alderdi Komunista moduan antolatutako proletariotzaren botere-hartze politiko gisa ulertuta. Inolaz ere ez zen parlamentarismoaren inguruan pentsatu hura antolakunde komunisten jokabide normalizat hartuta edo erreforma-politiken bidez langile-klasearen egoera hobetzeko bideztat jota. Are gehiago, parlamentarismoari buruzko eztabaidak ez zuen interesik komunistek iraultza gauzatzeko gaitasun antolaturik ez zuten lekuetan (kasu honetan, antolakuntza armatu bat) eta boterea hartzeko baldintzarik ez zegoen tokietan, eta burgesiaren instituzioetan parte hartzea ez zen aukera bat ere.


Azken hori ere pisuzko arrazoi bat izan zen boltxebikeek 1905ean masek konkistatutako Lehen Duman ez parte hartzea erabaki zezaten. Izan ere, iraultza-testuinguru bat izatea ez zen nahikoa boltxebikeen ikuspegitik, eta, batez ere, Leninen ikuspegitik. Alderdi Komunistaren beharra defendatzen zuen; kontzientzia iraultzailea zeraman proletariotza antolatuaren abangoardiaren beharra, iraultza sozialista egiteko baldintza gisa. 1905a urte zaila izan zen antolakuntza boltxebikearentzat; are gehiago, antolakuntza eskaseko urtea izan zen, eta 1905eko protestak aurreikusi ez izanak joko kanpo utzi zituen aldi batez. Baldintza horietan, parlamentuan parte hartzeak ez zuen zentzurik, abangoardia komunista ez baitzegoen prestatuta bere zeregin historikoari erantzuteko, eta hauteskundeetan parte hartzeak desorientazio ideologiko eta politikoa ekarri zuen. Hau da: helburu batzuk betetzeko jaio zen antolakuntza komunista, baina horiek burutzeko baldintzetan ez zegoenez, kalterako izango zen parlamentuan parte hartzea.

Ibilbide demokratiko luzea duen masa-antolakuntza proletario zabalak (kapitalismoaren garapen zabalagoaren eta proletarioen esperientzia metatu handiagoaren ondorio) atea ireki zion beste termino batzuen gainean eraikitako konfrontazio iraultzaile bati eta demokrazia eta ordezkagarritasuna zentzu proletarioan zabaltzeari, komunismoaren printzipio garatuagoekin bat etorritz

Hala eta guztiz ere, parlamentarismoaren inguruko eztabaida, ikuspegi komunista batetik, Munduko Iraultza Sozialistaren strategiaren mende baino ezin da ebatzi. Hori falta bada, ez dago balio duen eztabaidarik. III. Internazionalaren barruan aurrez aurre zeuden posizioen jatorria eta azalpena da –nahiz eta ez den hala azalpena agortzen– munduko iraultzaren garapen-egoera desberdina zela herrialde batetik bestera. Iraultza boltxebikea, lehenik eta behin, kolpe politiko-militar gisa gertatu zen (I. Mundu Gerrako krisi belikoaren ondorioz estatua desagiten ari zen egoera batean), eta, aldiz, Mendebaldean, antzeko testuinguru beliko batean, baldintza iraultzaileak zertxobait ezberdinak ziren:

ibilbide demokratiko luzea duen masa-antolakuntza proletario zabalak (kapitalismoaren garapen zabalagoaren eta proletarioen esperientzia metatu handiagoaren ondorio) atea ireki zion beste termino batzuen gainean eraikitako konfrontazio iraultzaile bati eta demokrazia eta ordezkagarritasuna zentzu proletarioan zabaltzeari, komunismoaren printzipio garatuagoekin bat etorritz. Zentzu horretan eta testuinguru horretan ulertu behar dugu, alde batetik, parlamentarismoaren inguruan kontrajarritako jarrerak egotea eta, bestetik, borroka horren sintesi gisa sortzen den estrategia bateratu baten beharra izatea. ●

KOMUNISMOA ETA PARLAMENTARISMOA



“**G**ure jarduera legezko eta parlamentarioaren atzean ez badago langile-klasearen biolentzia, beti behar den unean ekintzara pasatzeko prest, sozialdemokraziaren ekintza parlamentarioa denbora-pasa espirituala bihurtzen da, ura iragazki batez ateratzen saiatzea bezainbeste”

-Rosa Luxemburg

Teoría politikoak beti egin izan ditu metafora organizistak. Bereziki sozialismo zientifikoak, zeinaren ikuspuntuak, Marxen arabera, “prozesu historiko natural moduan” ulertzen baitu “formazio ekonomiko sozialaren garapena”^[1]. Ez da harritzekoa langile-klasearen alderdi iraultzailea maiz ulertu izana gaixotasunen mehatxupearan garatu den organismo bizi bat balitz bezala. Marxek, Engelsek eta Leninek “kretinismoan” eta “ezkerriaren infantilismoan” identifikatu zituzten langile-klasearen garapena oztopatu zezaketen gaixotasunak, haien ustez, korronepitu egiten baitzuten langile-klaseak parlamentarismoarekin –ekintza politikorako forma nagusia gizarte modernoaren sorreratik– duen harremana. Artikulu honen helburua, hain justu, arlo horretako hiru aukera nagusien edukia eta diferentziak kontzeptualki bereiztea da. Hauek dira hiru aukera horiek: erreformen alderdi demokratikoaren oportunitate sozialdemokrata eta haren “kretinismo parlamentarioa”; alderdi blanquistaren ezkerria anarkizatzailea eta haren “infantilismoa”; eta boltxebismoaren masa-alderdi komunista eta haren “parlamentarismo iraultzailea”. Hiru lerro politiko horiek sintetizatzen dute esperientzia politikoaren eta eztabaida ideologikoaren hamarkaden joana, eta, testu honetan, haien printzipio eta ondorio nagusiak plazaratuko ditugu.

Estatua, hau da, Kapitalaren dominaziorako organo politikoa ulertzeko jarrerak inplizituki jasotzen du iraultzarantzko joera politikoa

ESTATUA, DEMOKRAZIA, PARLAMENTARISMOA

Estatua, hau da, Kapitalaren dominaziorako organo politikoa ulertzeko jarrerak inplizituki jasotzen du iraultzarantzko joera politikoa. Estatuaren aurreko jarrerak komunismoa eta oportunitate bereizten dituen amildegia politikoa ikus daiteke, hau da, bakoitzaren *printzipioen* antagonismo adiskidetu ezina. Antagonismo horretatik abiatuta, gainera, ondorioztatzeko modukoa da bi joera horietako bakoitzak zer jarrera duen demokraziaren aurrean –erregimen politikoa moduan–, bai eta parlamentarismoaren aurrean ere –instituzio eta ekintza politikoko forma moduan–. Artikulu honen helburua parlamentarismoaren arloko jarreraren arteko talka ulertzea denez, beharrezkoa da estatuari eta demokraziari buruzko kontzeptu orokor batzuk argitzea, haietan sostengatzen baitira hemengo tesiak.


Estatu kapitalista modernoa, Europako monarkia absolutisten gainean eraikia, gizarte zibiletik bereizirik eta haren gainetik eraikitako gobernu-aparatu bat da. Haren ezinbesteko organo bakarra botere exekutibo da –horrek bereizten du haren definizioa gainerako instituzio sozialenetik–, eta organo horrek bere borondatea inposatzeko gaitasuna ematen dio, azken buruan indar fisikoaren aplikazioan babesturik. Leninek, Marxen eta Engelsen testuetan oinarrituta, *Estatua eta Iraultza* lanean ematen duen formulazioaren arabera, estatua nagusiki *gizaki armatuen aparatu berezi* bati aginduak ematen dizkion *buokrazia* da. “Estatua” eta “makina buokratiko-militarra”, beraz, termino trukagarriak dira^[2]. Buokrazia diogunean hau esan nahi dugu: “masetatik dibortziaturiko eta haien gainetik kokaturiko pertsona pribilegiatu batzuek osatutako antolakuntza-sistema”^[3]. Buokraziaren aginte-katean, aginduak *goitik behera* ematen dira eta haien arrazoiak ez dira erabakitzekeko prozesu kolektibo baten ondorio; aginduok ematen dituzten norbanako edo organo kolegiatuak ez dira aukeratzen eta kontrolatzen, eta haien karguak ez dira ezeztatzen; inola ere, aparatu horrek hartzen dituen erabakiak aplikatzen zaizkien norbanakoek ez dute aukerarik erabakion forma eta edukia zalantzan jartzeko. Buokraziaren funtzioa da ordenari eta segurtasunari eustea eta jabetza pribatua errespetatzen dela ziurtatzea.

Demokrazia, jatorrizko esanahian, buokraziaren kontrako norabidean bultzatzen egiten duen herri mugimendua da: helburua du gobernuaren botere arbitrarioari kontrola eta mugak ezartzea, boterea ez dadin gauzatu gobernatzaileen apetaren arabera. Bestela esanda, demokraziaren oinarria *behetik gora* doan bulkada baten atzeko indar politikoa da. Elkartzeko, manifestatzeko eta prentsarako eskubidea eskubide demokratikoen eremukoak dira. Orobat, eremu horretakoak dira sufragio unibertsala eta haren bidez parlamentuan adierazten den nahia, eta gero parlamentuak ahalmena izatea *lege* batzuk ezartzeko, guztioi berdinean eragiten digutenak, estatuaren gobernuari barne. Parlamentu demokratiko bat existitzeak estatua Kapital osoaren interesen arabera jardutera behartzen du, eta ez jabe handien mesedetan bakarrik.

Hala, estatu kapitalista modernoak eta bere botere-banaketak pisu eta kontrapisuen sistema bat haragiztatzen du. Sistema horrek aldi berean ordezkatzeko eta subordinatzen ditu gizarte zibileko indar biziak, halako moldez, non gizarte horren interesen arteko tentsioak osotasuna modu ordenatuan erreproduzitzen baitu, eta ez, aldiz, hura klaseen arteko talka ireki batean disgregatzen. Parlamentua da ordezkatzeko eta subordinatzeko logika hori ondoen irudikatzen duen erakundea; izan ere, parlamentua existitzeak berak aurrez kanporaturiko gizarte-geruzen inklusio politikoa zuen helburu –lehenengo jabe kapitalisten eta gero proletario desjabetuen inklusioa–. Sufragio unibertsala ezartzearekin batera iritsi zen gobernera gizarte zibila osorik ordezkatzeko prozesu hori, eta horrek albo-kalte bat ekarri zion botere kapitalistari, Marxek honela laburbildua: *Forma errepublikarrak bere dominazio politikoa agortzen duenean ere (eta hari itxura arrotz oro kentzen diogunean ere), aldi berean ahaldu egiten du bere oinarri soziala, orain klase zapalduak egin behar baitiete aurre, eta haiekin konpondu behar baitu ezin mediaziorik gabe*^[4].

Logika parlamentarioak modua ematen du gizarte zibila itzalpean urratzen duten klase-gatazkak lehenengo aldiz erabateko gardentasunez azaleratzeko

Beste alde batetik, Estatuaren forma parlamentarioak aukera ematen du Kapitalak osotasun moduan dituen interesak baieztatzeko, haren ezin fakzioren interesak lehenetsi gabe –proletariotzak, lan-indarra merkantziaren jabea den aldetik, fakzio horietako bat ordezkatzeko du langile-aristokraziaren figuran–. Bestalde, hala ere, logika parlamentarioak modua ematen du gizarte zibila itzalpean urratzen duten klase-gatazkak lehenengo aldiz erabateko gardentasunez azaleratzeko. Lehenengo aldiz, parlamentua gizarteko kide guztiak ordezkatzeko apaltzen ahalegintzen den klaseen arteko gatazka publikoki aitortzeko parlamentuaren barrenekiko. Alderdi proletarioari dagokio, beraz, demokrazia burgesaren paradoxa hori esplotatu eta eskubide eta askatasun burgesen bidez klase-borroka esplizitu egitea, eta, gainera, hori herriaren borondatearen gordailu den organoan egitea. Parlamentuak proletariotza militanteari klase politiko eta independente moduan garatzeko tresna bat ematen dio^[5]. Nagusiki hiru moduren bidez laguntzen dio garatzen: lehenbizi, botoen bidez haren indarra neurtuz. Indar horren gaineko kontzientzia, berez, morala handitzen duen estimulu bat da. Bigarren modua agitazioa eta propaganda da: askotariko gai politikoei buruz ikuspuntu independentea hedatzea. Hirugarrena klaseen arteko indar-korrelazioa aldatzen duten lege eta erreformak sustatzea da; horrek, era berean, proletariotza bere azken interesak lortzeko hezten du. Alabaina, tresna hori ez bada iraultzaren zerbitzura jartzen, litekeena da perbertitzea. Hain justu, horixe gertatzen zaie oportunistoari eta kretinismo parlamentarioari.



OPORTUNISMOA ETA KRETINISMO PARLAMENTARIOA

Estatuaren ulkerera marxistaren distortsio oportunistak honetara mugatzen da: ez da beharrezkoa iraultza baten bidez Estatu deuseztatu eta indar proletarioen organoen bidez ordezkatu. Oportunistoaren ustez, Estatu, forma demokratikoa duenez, tresna neutro eta historikoki behin betikoa da, eta, beraz, lortu beharreko helburua gehiengo parlamentarioak parlamentua proletariotzaren eskuetan uztea da^[6]. Kapitalaren erakunde politikoa era horretan naturalizatzearen arrazoia da oportunistoak ez duela ezagutzen boterearen egiazko jatorria, eta, hala, boterea ganbera parlamentarioaren lau pareten artean giltzapetzen duela. Kapitala bortxaz inposatzen badute hura ordezkatzeko duten parlamentariak, sozialismoaren ekintza politikoa parlamentu horren barruan ahal besteko indarra lortzera mugatzen da. Horixe da Marxek “kretinismo parlamentario” izendaturiko horren esentzia: gaixotasun politiko horrek kutsatuta, langile-klasearen ordezkariak baloratzen dute klase-borroka jarduera parlamentarioaren esparruan ebatzen dela. Kretinismo parlamentarioaren barrenean inplizituki dator jarduera politikoen ulkerera oso bat, “demokrazia arruntaren” ulkerera, helburu bakartzat Kapitalaren instituzioak pixkanaka demokratizatzea duena. Demokrazia *arrunta* da, preseski, ikusmiratik galtzen duelako organo politikoei indarra ematen dien funts sozial edo materiala, eta, harekin batera, baita organo horiek iraultzaren bidez deuseztatzea ikuspegia ere.

Demokrata burges-txikien izaera zinez erreakzionarioa Europako sozialdemokraziaren eskuin hegalarren 1914ko traizioan gelditu zen agerian; ekidistantziak koldarkeriaz, aukera izan zuenean, iraultza sozialari uko egin ez ezik, aurre ere egin zion, arma bidez egin ere. Demokrazia kapitalistaren eta botere sobietarraren arteko kontraste irekiak metodo parlamentarioaren absolutizaziotik ondorioztatzen den politika erreakzionarioa baieztatzen du; absolutizazio horren atzean botere kapitalistaren organo politikoranzko zurikeria izugarria dago, baita ordena kapitalista iraultzeko helburuari uko egitea ere. Karl Kautskyk, postura horren defendatzaile sutsuenak, hala, “demokrazia oro har” erabili zuen hura sostengatzeko, klaseen arteko harremanetatik aparteko antolakuntza politikoko printzipio moduan. Ez zen nolana hika izan haren etsai izatera igaro zirenek, klase-gorrotz suturik, eman zioten erantzuna; haren adibide dira Leon Trotskyren *Terrorismoa eta komunismoa* eta Vladimir Leninen *Iraultza proletarioa eta Kautsky arnegaria*.

Sozialistek Estatuaren instituzioetan baldintzarik gabe eta *printzipio* hutsez parte hartzearen problema da Estatuak, demokratikoa izanagatik, ez duela burokratismoaren zantzuei ihes egiteko ahalmenik. Burokratismoak, hain justu, nolabaiteko bereizketa sortzen du gorputz politikoen buruzagitzaren eta masen artean –bigarrena lehenengoaren erretagoardia pasiboa da, politikoki azpiratua–. Masa proletarioaren aktibazio politiko erabatekoak botere exekutiboaren subordinazio demokratikoa dakar berekin, eta estatuburuak eta masak *fusionatzea* funtzio legegilea eta exekutiboa aldi berean gauzatzen dituen botere-organok bakarrean^[7]. Ordea, fusio hori ezinezkoa da ordezkarietako demokrazia baten bidez, bereizi egiten baititu estatuburuak eta masak, era berean, baita Estatuaren barneko botereak ere. Botere sobietarraren bidez soilik fusioa daitezke gizartea eta bere organo politikoa autogobernuko aparatuek legegile eta exekutiboetan, hau da, aparatuek burokratiko-militarra suntsituz eta kontseilu bidezko demokrazia bat ezarritik. Estatu kapitalistaren demokratizazioa –oportunistoaren xedea– ilusio bat da: alde batetik parlamentarismoa naturalizatu egiten du historikoki behin betikoa den erakunde moduan, bitarteko huts izan behar duena helburutzat hartuz; bestetik, ekintza politikoen formarik desiragarriena balitz bezala aurkezten du, eta, horrekin batera, masak eta haien borrokek parlamentutik kanporatzen eta bigarren-mailako rol guztiz subordinatu batera baztertzen ditu.

Labur esanda, kretinismo parlamentarioaren ezaugarri nagusia parlamentarismoa modu burokratikoan erabiltzea da. Parlamentuko jardura politikoki independentea den alderdi baten garapenera subordinatu beharrean –parlamentutik kanpoko masa mobilizatu batek sostengaturiko alderdi bat, eta, beraz, zentzu proletario eta erradikalean demokratikoa litzatekeen alderdi batera–, klaseen arteko gatazka arintzeko bitarteko moduan erabiltzen du parlamentua, hau da, desmobilizaziorako bitarteko moduan, proletariotza Estatu burgesaren lege eta instituzioekiko errespetuan heziz. Mugimendu proletarioa erreformen alderdi demokratikoen helburu immediatoetara subordinatzen du, eta, horren bidez, jendeari hezurretaraino sartzen dio Estatu gatazka guztiak konpontzeko gai dela dioen fede superstitioso bat, hauteskundeetako emaitza immediatoa absolutizatzen du printzipio oro eta epe luzeko helburuak sakrifikatuz, eta, azken buruan, proletariotzari konfiantza urritzen dio klase moduan duen boterearen indarrari dagokionez –botere oro derri- gor antolatua behar da parlamentuak ezarritako mugetatik at–.

EZKERKERIA ETA ANTIPARLAMENTARISMOA

Oportunismoak marxismo iraultzailearen oinarritzko egia hau ukatzen du: kapitalismoak eta haren erakunde ekonomiko eta politikoak historikoki iraungita daude. Egia hori komunismoaren printzipioetan dator adierazita; printzipio horien arabera, beharrezkoa da estatu kapitalista suntsituko duen eta proletariotzaren diktadura ezarriko duen iraultza politiko bat gertatzea. Oportunismoaren kasuan ez bezala, “ezkerkeria” etiketaren pean bil daitezkeen joeren multzoa marxismo iraultzailearen printzipioetara atxikitzen da. Aitortu egiten dute Estatua abolitzeko eta proletariotzaren diktadura ezartzeko beharra eta, beraz, iraultzaren esparruan eta oportunistoarekiko aurrez aurre kokatzen dira modu argian. Hala ere, ezkerkeriak modu abstraktuan baino ez ditu onartzen printzipio horiek, hausnartu gabe zein maniobra zehatz behar diren printzipio horiek praktikan gauzatzeko. Xedek bi-latzen ditu bitartekoak ezarri gabe. Leninen hitzak gogora ekarriz, ezkerkeria “komunismoaren gaitz infantil” bat da, proletariotzaren alderdia eramaten duena printzipio horiek hausnarketarik gabe eta modu zurrun eta dogmatikoan defendatzera. Defentsa horrek grina nerabe oraindik ere diziplinatu gabe baten sintomak arrastatzen ditu, eta hori pazientzia, pertseberantzia eta konstantzia falta gisa islatzen da.


Gaitz infantil hori argi eta garbi ageri da ezkerkeriak parlamentarismoari dagokionez duen jarreran. Parlamentua erakunde erreazionarioa eta historikoki iraungia dela aitzakiatzat hartuta, ezkerkeriak guztiz baztertzen du bertan esku hartzeko era oro. Uko egite horren arrazoia honako uste faltsu hau da: posible da komunismoaren printzipioek ezarritako xedek erdiestea baldintza koiunturalak gorabehera eta horretarako dagoen indarra edonolako izanik ere, hau da, xedea erdiesteko beharrezkoak diren bitartekoak kontuan hartu gabe. Ezkerkeriak, gure aldi historikoarekin kontsekuentea den gobernu-forma botere sobietarra dela uste izanda, uko egiten dio indarrean den errealitate politikoa-ren barruan maniobratzeari. Uko egiten dio kapitalismoak sorturiko armak haren kontra erabiltzeari. Uko egiten dio, beraz, burgesiaren instituzioetan komunismoaren kontsignak eta komunismoak zenbait gairen inguruan duen ikuspuntua zabaltzeari; ondorioz, alderdi iraultzaile baten absentsian, gai horiek soilik Kapitalaren alderdietako ordezkarien artean jorratuko liriateke, posizio antagoniko eta independente batean inspiratutako ahots kritiko bat aurrez aurre izan gabe.

Ezkerkeriak nahastu egiten du proletariotzaren ordezkari kontzienteenen nahia langile-klasearen benetako kontzientziarekin. Bigarrena kontuan hartu gabe lehena berresten saiatzeak areagotu egiten du isolamendua, are gehiago desegiten ditu abangoardia iraultzaileak proletarioen masarekin dituen lotura objektiboak. Komunismoaren printzipioak modu abstraktuan berrestearen eraginez, ezkerkeria ez da gai proletariotza osoarekin fusionatzeko, ez eta interes historikoei buruzko kontzientzia politikoa sorrarazteko ere. Ondorioz, langile-klasea oportunistoaren eta burgesiaren gainerako alderdien eraginaren mende uzten du. Inteligentzia politikoa nahikorik ez izateak eragotzi egiten dio defendatzen dituen kontsignak modu maximalista eta intrantsigentean aplikatzeko behar adinako indarra konkistatzea. Beste modu batera esanda, alde batera uzten du ideia hau: ekintzarako edozein dei edo edozein erabaki politikoa aplikatzeko beharrezkoa dela indar soziala metatzea. Babes masiborik gabe, *aurretiaz konbentzita zeudenen* babesaren baina ez du edukiko; aitzitik, politika iraultzailearen helburua da, hain zuzen ere, lokartuta, kontzientziarik gabe eta pasibo dauden, beren interesen aldeko borroka

Parlamentarismoari dagokionez, ezkerkeriak ez du onartzen parlamentutik kanpoko indarra parlamentu barruko jardueraren bitartez ere konkista daitekeenik

arrotz zaien edo gehienez ere haienak izatetik oso urrun dauden klase-interesen arabera mobilizatzen diren langileen masak mobilizatu, inspiratu eta heztea. Parlamentarismoari dagokionez, *ezkerkeriak* ez du onartzen parlamentutik kanpoko indarra parlamentu barruko jardueraren bitartez ere konkista daitekeenik. Era honetan laburtu zuen Leninek bere *Ezkerkeria* lan klasikoan:

Hain zuzen ere langileen eta, are gehiago, nekazari txikien masa atzeratuek aurreiritzi demokratiko-burgesak eta parlamentarioak barneratuago dituztelako Mendebaldeko Europan Errusian baino, hain zuzen ere horrexegatik, soilik erakundeetan gauza dezakete eta gauzatu behar dute komunistek –hala nola parlamentu burgesetan– borroka luze eta nekazekin bat, inongo zailtasunen aurrean atzera egin gabe, aurreiritzi horiek salatu, desegin eta gainditzeko.^[8]



BOLTXBISMOA ETA PARLAMENTARISMO IRAULTZAILEA

Boltxebismoak proposatzen duen masen alderdi iraultzaileak honela ulertzen du komunismoa: klase osoa modu aktiboan barne hartu behar duen prozesua. Horrek zorrotz jarraitzen dio alderdia kontzientzia sozialistaren eta proletariotzaren arteko fusioa dela dioen Marx eta Engelsen ideari. Masen alderdi iraultzailearen esentzia era honetan laburbildu daiteke: burgesiaren aurkako azken bataila, iraultza, ekintza erabakigarria da eta langile-klasearen gehiengoaren babesa izan behar du; babes hori konkistatzeko, ezinbestekoa da haren kontzientzia politikoa denbora luzez heztea agitazioaren, propagandaren eta antolakuntzaren bitartez. Misio hori erdiesteko gai den Alderdi Boltxebikearen eredu printzipio komunistekiko fidelotasun osoa duten militante diziplinatuen antolakunde bat da, eta haren lana proletarioen masa zabalekin lotura solidoak ezartzea da. Soilik masa horiek printzipio komunisten praktikarekin konbentziturik daudenean, soilik boterea hartzeko eta diktadura ezartzeko prest daudenean esan daiteke printzipio horiek oraingoz soilik teoriar irudikatzen duten klase-independentzia hori *benetan* gorpuzten dutela.

Printzipioak aldarrikatzearen eta printzipio horiek benetan gauzatzearen arteko prozesuan, borrokarako bitarteko askotarikoak erabili behar dira, hain zuzen ere komunismo iraultzaileak masengan duen eragina hedatzea eta masa horiek oportunistoaren eraginpetik askatzea ahalbidetuko duten bitarteko guztiak. Hori, gorago esan den moduan, sozialismoa eta proletariotzaren mugimendua fusionatzeko prozesu bat da. Alabaina, fusio hori, zeina adierazten baita proletarioen masak modu aktiboan politika iraultzailean parte hartzean, ez da

prozesu historikoaren premisa bat, baizik eta hura burura eramatearen emaitza. Alderdi iraultzaileak egiten dituen maniobrak arduratzen dira, hain zuzen ere, kasuan kasu komunismoak duen eraginaren eremua hedatzeaz, masak bere printzipioetan heziz eta erakunde kapitalisten iraungipen *historikoa* efektibo bilakatuz *politikoki*.

Programa komunista hedatzeko plataformen artean aurki dezakegu, noski, parlamentua. Eta boltxebikeek parlamentuan esku hartzeko duten modua *parlamentarismo iraultzailea* da ^[9]. Parlamentarismo iraultzailea masa-alderdi komunistaren ekintza mota bat da, ordena kapitalistari eta haren erakundeei kontrajartzen zaien alternatiba komunista politikoki hedatzeko bitarteko bat. Honako hau da funtsezko ideia: parlamentua agitaziorako eta propagandarako plataforma gisa erabil daiteke, errealitate sozialaren ikuspegi marxista ezagutarazteko espazio gisa, batez ere klase-borrokak mahai gainean jartzen dituen auzi politikoei dagokienez. Parlamentarismo iraultzailea, parlamentarismo oportunistak ez bezala, osotasun gisa ulertzen den alderdi komunistaren jarduerara subordinatuta dago, gizarteko esparru guztietan gauzatzen den mobilizazioaren eta borrokaren gainean eraikitako mugimendua baita alderdi komunista. Parlamentutik *kanpoko* indar horri erantzun behar diote uneoro alderdi komunistako hautetsiek; hori da independentzia politikoaren eta komunismoaren printzipioekiko eta azken xedeekiko errespetu zorrotza izateko bermea. Alderdiak masen mugimendu antolatua gisa duen indarrari esker, saihestu egiten da interes propioei jarraikiz jarduten duten diputatuen presio-talde burokratikoak sortzea; izan ere, halako taldeek langile-klasearen programa historikoa galbidera eramango lukete.

Doktrina boltxebikearentzat, parlamentua espazio garrantzitsua da, nahiz eta indar soziala metatzeko esku har daitekeen beste espazio askoren artean bat baino ez izan. Hona hemen parlamentuan parte hartzeko oinarritzko bi argudio:

Lehenik eta behin, mugimenduaren azken xedea estatu burgesarekin eta parlamentarismoarekin berekin bukatzea da ^[10]. Ideia horrek kretinismo parlamentarioa saihestu behar du. Bigarrenik, helburu hori erdiesteko, beharrezkoa da borroka-metodoak ahalik eta malguenak izatea; hala, mugimendua prest egon behar da proletarioen kontzientzian eragiteko balia daitekeen edozein plataformatan parte hartzeko. Bigarren ideia horrek ezkerkeriazko intransigentzia saihestu behar du.

Beste era batean esanda, boltxebismoa ezkerrean eta eskuinaren doktrinarismoaren kontra dago eta, horren aurrean, konbinatu egiten du printzipioak zorrotz defendatzea eta malgutasun erabatekoz jardutea taktika aplikatzerakoan. Ikuspuntu horretatik, ezkerkeriaren eta eskuinkeraren akatsa taktika parlamentaria *jakin bat* goraiatzea da, zeina baldintzarik gabeko printzipioaren mailaraino igotzen baitu dogmatikoki, gainerako guztiak bazter uzten diren bitartean. Doktrinarismo horren ondorioa da proletarioen alderdiaren eskuak eta oinak lotuta gelditzen direla eta, beraz, ezin duela ekin egoerak bere doktrinaren aurreiritzi dogmatikoei bat ez datorren esku-hartze mota bat eskatzen duenean. Laburbilduz, boltxebismoarentzat, parlamentarismoa bitarteko bat da, *iraultzaren* zerbitzura dagoen organo edo tresna bat proletariotzak gauzatuko duen bataila erabakigarrian; alabaina, proletariotzak bataila hori soilik gauzatu ahal izango du bere borrokarako gaitasuna Kapitalaren gobernu-aparatua suntsitzeko eta bere erregimen politikoa ezartzeko bezainbeste garatu duenean. Balirudike hori argumentu minimalista bat dela,


Parlamentarismo iraultzailea, parlamentarismo oportunistak ez bezala, osotasun gisa ulertzen den alderdi komunistaren jarduerara subordinatuta dago, gizarteko esparru guztietan gauzatzen den mobilizazioaren eta borrokaren gainean eraikitako mugimendua baita alderdi komunista

politika iraultzailearen garapena atzeratu egiten duela eta, horren ordez, zain egoteko politika bat defendatzen duela; guztiz kontrakoa da, ordea: komunismoak onartu egiten du gaurdanik hasi behar dela langile-klasearen kontzientzia hezten eta lan hori gaitasuna duen espazio guztietan egin behar duela. Horrela, parlamentarismoak otzantze-bitarteko izateari uzten dio, eta proletariotza Estatuaren boterea (haren burokrazia eta indar errepresiboa) zein haren inguruko erakundeen –hala nola, parlamentua– boterea suntsitzeko beharrezko hezteko bitarteko bilakatzen da. ●



ERREFERENTZIAK


- [1] Marx, K. (2000). *El Capital*. Akal
- [2] Marx, K. (2015). *El dieciocho de Brumario de Luis Bonaparte*. Alianza Editorial
- [3] Lenin, V. (1975). *El Estado y la revolución*. Editorial Ayuso
- [4] Marx, K. (2015). *El dieciocho de Brumario de Luis Bonaparte*. Alianza Editorial
- [5] “Ikusi zen burgesiaren menderakuntza antolatzen zen estatu-instituzioek aukera berriak ematen zizkiotela langile-klaseari instituzio horiei beraiei aurre egiteko”. Marx, K. (2015). *El dieciocho de Brumario de Luis Bonaparte*. Alianza Editorial
- [6] “Egiazko erregimen parlamentario bat berdin izan daiteke proletariotzaren diktadurarako tresna edo burgesiaren diktadurarakoa”. Kautsky, K., Ed. Ben Lewis (2020) *Karl Kautsky on Democracy and Republicanism*. Brill
- [7] “Ordezkaritzako erakundeek bizirik irauten dute, baina desagertu egin da parlamentarismoa sistema berezi moduan, lan legislatiboaren eta exekutiboaren arteko banaketa moduan, diputatuen egoera pribilejiatu moduan”. Lenin, V. (1975) *El estado y la revolución*. Editorial Ayuso
- [8] Lenin, V. (2021). *La enfermedad infantil del izquierdismo en el comunismo*. Akal
- [9] Hauteskunde-estrategia marxista-boltxebikea sakonako aztertzeke, ikusi Nimtz, A. (2014). *Lenin´s Electoral Strategy From Marx and Engels Through the Revolution od 1905*
- [10] “Parlamentarismotik ezin da ihes egin, jakina, ordezkaritza-erakundeak eta hautatze-prozesuak deuseztatuz, baizik eta ordezkaritza-erakunde eleketari hutsak ‘lan-korporazio’ bilakatuz”. Lenin, V. (1975) *El estado y la revolución*. Editorial Ayuso



**BERRIZ BETIKOEK
IRABAZIKO DUTE:**

**HAUTESKUNDE-
TESTUINGURUARI
BURUZKO
ZENBAIT
HAUSNARKETA**


Testua — **Mikel Kaltzakorta**



Alderdi guztien programetan egingarriak ez diren politika sozialetarako proposamen hutsalak eta autoritarismoa indartzeko erreformak barne hartzen dira beti; ezberdintasunak, ordea, bi elementu horien arteko proportzioan kokatzen dira

EAEko eta Europako hauteskundeak kapitalismoaren fase beherakor batean datoz. Estatu- eta nazio-parlamentuak boterez husten hasiak dira; sektore aurrerakoien banaketa-politikek birbanaketarako marjina geroz eta txikiagoa dute eta, Ongizate Estatuaren gainbeherarekin batera, gizartearen parte handi bat produkzioan eta banaketan zuen parte-hartzea galtzen ari da. Krisi kapitalista hauteskunde-ziklo guztien atze-oihala da eta, beraz, ezkerreko eta eskuineko politikek egoera berri honetara moldatutako itun sozial berri bat erdietsi behar dute. Kapitalaren metaketa beharrentzat geroz eta handiagoa da inproduktiboa den lan-indarra, eta politikarientzat geroz eta zailagoa da irabazien birbanaketaren bidez langileriarri bizi-baldintza oparoak eskaintzea. Horregatik, burgesiaren eta proletalgoaren arteko bake-itun baten posibilitatea urrun dago. Izan ere, alderdi guztien programetan egingarriak ez diren politika sozialerako proposamen hutsalak eta autoritarismoa indartzeko erreformak barne hartzen dira beti; ezberdintasunak, ordea, bi elementu horien arteko proportzioan kokatzen dira.

Hauteskundeetan, lau urtean behin, herriaren ahotsa entzunarazi eta, politikarien bidez, erabakiak hartzeko espazioetan gizarte-ordezkaritza bat lortzen omen da. Bozkatzeari ariketa demokratiko bat ei da, baina itxurakeria hutsa besterik ez da hori; hauteskundeak eta demokrazia liberala, beren osotasunean, sakonki antidemokratikoak baitira. Izaera hori izan dute beti, gorabeherekin, baina nabarmenduz doa azkenaldian: hasteko, boterearen zentralizazio-prozesu bat gertatzen ari da maila globalean; gainera, aniztasunaren defendatzaile gisa aurkezten diren alderdi politikoen atzean interes berdinen defentsarako programa bakarra dago (oligarkiarena) eta, azkenik, gizartearen masa zabalaren (proletalgoaren) interesak ez daude ordezkatuta ez proposamen politikoetan, ez alderdian, ez eta parlamentuan ere.




BOTEREAREN ZENTRALIZAZIOA OLIGARKIAREN MESEDETAN

Gizartearen parte-hartze kuotekin batera, boterearen banaketa ere izan da estatugintza demokratiko modernoaren zutabeetako bat. Botere betearazle, legegile eta judizialaren banaketa jakin bat diseinatu zen demokraziaren babesle gisa, funtsean, interes partikularren kontrolerako proposamena zena. Botere-banaketa, ordea, itxurakeria baino ez da; izan ere, horien arteko sinbiosia etengabekoa izan da hasiera-hasieratik; are gehiago muturreko krisi-testuinguruetan, non itxurakeria hori guztia gauditua eta osoko zentralizazioa gertatzen den botere betearazlearen baitan. Horrela ikusi ahal izan genuen Espainiako Estatuan pandemiaren gestioarekin, eta horixe ari gara ikusten Frantziako Estatuan dekretu bidezko legea etengabe onartzea normalizatzen ari den honetan. Baina, boterearen zentralizazioaz ari garenean, hortik haratagoko zerbaiti buruz ari gara, itxurazko banaketaren gairaz haratago doana: estatuen eta beren baitako erkidegoen autonomia- eta botere-galeraz ari gara, oligarkia finantzarioen eta estatuz gaindiko instituzioen mesedetan.

Gaur-gaurkoz, Europar Batasuneko (EB) eta NATOko estatu kideen erabakitzeko eskumen kuota handiak estatuz gaindiko markoetan kokatzen dira; Europan eta, kasu batzuetan, AEBetan. Europari munduko merkatuan modu bateratuan jardutea interesatzen zaio, eta, horretarako, EBren parte diren estatu guztien politika monetarioetan esku-hartze zuzenerako konpetentzia du. Europa-ko hauteskundeetan atarian gauden honetan, pen-

tsa genezake, beraz, hauteskunde horietan dagoela gure parte-hartze kualitatiborako aukera, baina ez da horrela. Europako Batzordeak bereganatzen ditu inizatiba legegilea eta botere betearazle osoa. Hortaz, bertan daude legeak proposatzeko, erabaki betearazleak aplikatzeko zein Europako administrazioaren zuzendaritza orokorrerarako eskumena. Ordezkatzen dituen gobernuekiko independenteki jarduten du Batzordeak, eta bere funtzioa EBren interesak defendatzea da. Baina zein dira EBren interesak? Oligarkia finantzarioarenak, noski. Europako erabaki estrategikoak hartzen dituen erabakigune horrek ez du kontrol demokratikorako mekanismo minimorik. Botere-istantzia horiek zein antidemokratikoak diren erakusteko, adibide bakar bat: Ursula Von der Leyen, Europa osoa gerrara eramatea erabakitzen ari den buruzagietako bat, Angela Merkel kantzilerrak berak izendatu zuen Europako Batzordeko presidentea; noski, Europako Parlamentuak boto bidez antzetzutuen bere kargu-hartzea. Orain, ultraeskuineko emakume hori izango da oligarkiaren beso betearazlea Europan, eta ia oposizioerik gabe hautatuko dute berriro Europako Batzordearen gidaritzarako. Beste erabaki-organo batzuek, esaterako EBko Kontseiluak, Batzordearen gaineko gainbegiratze-gaitasuna dute. Hala ere, Kontseiluaren edozein erabakiri betoa jartzeko eskubidea du Batzordeak. Europako hauteskundeetan Europako Parlamentua da hautatzen dena, alegia, botere legegile eta betearazle errealki ez duen organoa. Biztanleriaren gehiengoak ez du, beraz, erabakitzeko eskumenik hauteskunde horietan.



Baina hortik haratago, estatuetako parlamentuak boterez husten ari dira, eta Europar zentralizatzen, eta bi arrazoi nagusirengatik diot hori. Batetik, aipatu dugun Europako Batzordeak estatu kideen gaineko botere koertzitiboa duelako, batez ere, aurrekontu nazionalai edo zorren kudeaketari lotutako auziei dagokienez. Bigarrenik, merkatu nazionalen kompetentzia ezak behartu egiten ditu herrialdeak moneta-, ekonomia- eta segurtasun-politika bateratuak egitera mundu mailan potentzia lehiakorrak izateko (herrialdeen barne- zein kanpo-mailan). Hori horrela, eta kontuan izanda burgesiaren alderdien politikak, soziodemokratizatik hasi eta liberalenataraino, politika ekonomikoetan oinarritzen direla, argi dago nork duen erabakitze eskumena: finantziario-iturria duen horrek. Hala, boterea oligarkia finantziarioetan zentralizatzen ari da, politiken finantziario-iturri pribatu gisa. Horrek, eliteen botere ekonomikoa handitzeaz gain, beren botere politikoa ere handitzen

du. Testuinguruari erreparatzen badiogu, gainera, austeritate eta testuinguru beliko gorakor baten garaia izanik, are erabakitze ahalmen handiagoa zentralizatzen dute EBk eta elite finantzarioek. Krisi-garaira egokitzeko finantzazileek diseinatu dituzten estatuz gaindiko austeritate-politikek muga estruktural bat dakarte politika nazionala eta estatukoa garatzeko, eta maniobrarako marjina oso mugatuta uzten die alderdiei politika ekonomikoak egiteko. Hala ere, mugatutako espazio horrek eskaintzen dituen marjinetatik urruti kokatzen ditu bere politikak ezkerak, eta egin daitekeena baino are gutxiago egiten du. Hautesleak, orokorrean, eskumara desplazatu dira, eta hala egin dute alderdi guztiek ere, alderdiok masa-gizartearen zati batzuk ordezkatzeko baitituzte. Hala, garai bateko alderdi ezkertiarren birbanaketaren aldeko erreforma-programak guztiz zaharkituta gelditu dira, beren garapenerako testuinguru ekonomiko eta kultural aproposik gabe.


HAUTESKUNDE-KANPAINA ETENGABEA

Horrekin guztiarekin azaldu nahi dena zera da: hauteskunde-kanpainak, demokraziaren adierazle izatetik urrun, propaganda-kanpainak besterik ez direla. Hautesle-masa interpelatzeko eta mobilizatzeko dinamikak dira hauteskunde-kanpainak, finean, ordena kapitalista legitimatzeko mekanismoak. Hauteskunde-kanpainetan aurkaritzan dauden proposamen programatiko gisa aurkezten dizkiguten horien atzean, banaketa-modu ezberdinak, botere kuoten banaketak eta esplotazio-modalitateen arteko desadostasunak daude. Beraien arteko etsaitasuna, beraz, alderdien arteko talka hutsa da. Ez da programen arteko talka errealik. Beste modu batera esanda, alderdiak Estatuaren kudeaketatik lehiatzen diren enpresa-egitura konplexuak dira, kudea dezaketen estatuaren helburuak eta noranzkoak jada erabakita daudelarik.

EAEko kasura etorrira, adibidez, beste hainbat tokitan bezala, bi alderdi handiren arteko talkan gertatzen da hegemoniaren aldeko borroka. Espainiako Estatuko hauteskundeetan ez bezala, EAEko hauteskundeetan ez dago ultraeskuinaren susperraldirako mehatxu errealik, eta, beraz, alderdi bakoitzak dituen proposamen ekonomiko eta politikoak dira kanpainan talkan jarri daitezkeen elementuak. Gaur-gaurkoz, EH Bildu eta EAJren arteko hauteskunde-gatazka inoiz baino berdinduago dago. Hamarkada luzeetako EAJren agintaldiaren ostean, EH Bilduren garaipenak ilusioa pizten die batzuei. Baina benetan al dakarte proposamen berri bat? Kontuan hartzen baldin baditugu azkenaldian garatutako proposamen politikoak, hartutako erabakiak eta posizioak, aho batez esan daiteke ezetz. Ezberdintasunetako asko hauteskunde-kanpainarako propio antzetzutak direla ikus dezakegu; adibidez, EH Bilduk ez du arazorik izan EAJren ildo beretik jarduteko bai Nafarroako koalizio-gobernuan bai Eusko Jaurlaritzan funtsezkoak diren legeen onarpenean (Trantsizio Energetikorako Legea, kasu). Beste lege batzuen kasuan, Hezkuntza Legean esaterako, argi dago EAEko alderdi nagusien neu-

Alderdiak Estatuaren kudeaketatik lehiatzen diren enpresa-egitura konplexuak dira, kudea dezaketen estatuaren helburuak eta noranzkoak jada erabakita daudelarik

rrira egindako proposamen bat dela, azken unean hauteskunde-interesengatik EH Bilduk parlamentuan babestu ez duen arren. Horrekin batera, biak Espainiako Estatuan guztiz integratutako alderdiak diren heinean, bertako parlamentuan ere funtzio berdintsua jokatzen dute: lobby autonomistarena eta PSOEren sostengua den gobernu-blokearena. Izan ere, botere-kuota autonomikoak transferitzeko etengabeko saiakerak egiten dituzte, Espainiako Gobernuaren bideragarritasuna bermatzearen eta austeritate- zein gerra-aurrekontuak onartzearen truke. Eta Espainiako Estatuan ez ezik, hainbat udaletan ere kudeaketa berdintsuak dituzte. Zer aldaketa izan da EH Bilduk hamarkada batez gobernatu dituen udalerrietako proletalgoaren bizitzetan? Instituzioen maniobrarako marjina txikia dela esan dugu, baina horren barruan har zitezkeen neurriak ere ez ditu hartu.




Parlamentuan parte hartzeak eragin handia du alderdi politikoengan, are gehiago masa-mugimendu izatetik datozenetan. Alde batetik, indar instituzional bilakatzeak diskurtsoa eta formak moderatzea dakarrelako, eta hori kasu askotan masa-mugimenduaren neutralizazioarekin batera dator. Paradigmatikoak izan daitezke EH Bilduren kasua Euskal Nazio Askapen Mugimenduarekin (ENAM) edo Podemosen kasua M-15 mugimenduarekin. Beste alde batetik, instituzio kapitalisten kudeaketak burgesiaren joko-zelaian jardutea eskatzen du, bere arau eta betebeharrekin, eta horrek higadura handia eragiten die alderdiei; higaturak eta kontraesanak. EH Bilduk kontraesan horiek naturalki asumitzen ditu, eta, etengabe bi diskurtso kontrajartzen, kontraesanak neutralizatzen ahalegintzen da. Bere baitako antolakundeen artean funtzio-banaketa bat garatu du, erdi-mailako klase nazionalaren hegemonia bere aniztasunean bereganatzeko. Adibidez, bere kargu instituzionalak polizia autonomikoaren omenaldietara doazen bitartean, gazte antolakundearen bidez horien aurkako kanpaina abiarazten du; edo gerra-aurrekontuak eta militarizazioaren aldeko aurrekontuak onartzen dituen bitartean, gerraren aurkako mobilizazio jakin bat hauspotzen du. Horrela, ENAMetik datorren oinarri sozialaren eta gazteriaren egonezina asetzen ditu eta, era berean, EAJren oinarri sozialetik elikatzen jarraitzeko baldintzak eraikitzen ditu. EH Bildurentzat geroz eta estrategikoagoa da bigarren masa horretara iristea eta hura bereganatzea; horregatik, gero eta gehiago aurkezten du bere burua instituzioen kudeatzaile on bezala eta gero eta kontzesio gutxiago egiten dizkie sektore ezkertiarrei.

Ezkerretik eskuinera, proposamen politikoaren oinarriak berak dira. Denek onartzen dute burgesiaren antolaketa-modua: haren estatu-aparatuen onarpena erabatekoa da, jabetza pribatuaren aldeko defentsa ere irmoa da, eta denek onartzen dute esplotazioan oinarritutako gizarte-eredua. Are gehiago, irabazi kapitalisten zati txiki batean oinarrituz diseinatzen dituzte beren politikak, irabazi kapitalista bera zalantzan jarri gabe. Horrek antolaketa politiko independenteari legitimitatea kentzea eta klase desjabetu oso baten existentziaren betikotzea dakartza, finean, klase-gizartearen defentsa egiten baitute guztiek. Iritzi eta ikuspuntu desberdinak dituzten alderdiek aniztasuna isla dezakete, baina beti pentsamendu berdinen baitan. Hori da euren demokrazia, hori da euren aukera-aniztasuna.

Alderdi gehienek ez dute proletalgoaren ordezkatzeko instituzionala bilatzen, jada ez baitago gizarte-sektore hori itun sozialean modu baketsuan eta onurekin integratzerik, eta bide posible bakarra bazterketa eta autoritarismoa direlako

Parlamentarismoaren izaeraren ondorioz, baina baita krisi-testuinguruak eragindako muga estrukturalak azaleratzen joan direlako ere, alderdiek gizarte sektore ezberdinak ordezkatzeko zuten gaitasuna murriztuz joan da. Batetik, aipatu den bezala, proletalgoak ez duelako hautesle-masaren izaerarik, instituzioekiko desatxikimendu gero eta handiagoaren ondorioz; eta, bestetik, krisi-garaian finantziario txikiagoa geratu delako Ongizate Estatuan jasotzen zituen onuretarako. Alderdi gehienek ez dute proletalgoaren ordezkatzeko instituzionala bilatzen, jada ez baitago gizarte-sektore hori itun sozialean modu baketsuan eta onurekin integratzerik, eta bide posible bakarra bazterketa eta autoritarismoa direlako. Hortik kanpo, alderdi bakoi-tzak bere hartzaille potentziala ondo zehaztuta du. Oparotasun garaian barne har dezakeen hartzaillea zabalagoa da, politika egiteko duen marjina ere handiagoa delako. Hala ere, proletalgoa ez da inoiz izan hauteskunde-hartzaille potentziala burgesiaren alderdiarentzat. Izan dituen onurak erdi-mailako klasearentzat diseinatutako politiken ondorio izan dira, edo instituzioetatik kanpoko langile-mugimendu indartsu batek presiorako izandako gaitasunaren ondorio. Beste kasu batzuetan, mugimendu indartsuak asimilatu eta horiek integratzearen truke egindako kontzesio puntualak ere izan dira.



Espainiako Estatuko kasua aztergai hartuta, azken urteetako “gubernurik aurrerakoiak” erdi-mailako klase gero eta murriztazago bat babesteko neurriak hartu ditu. Langileriaren sumisioa izan da kasu honetan bidesaria; batik bat, Euskal Herrian nagusi izan zen borroka-zikloa itzaltzea eta 15-M bezalako mugimenduen asimilazioa. Espainiako Gobernuaren kasuan, neurri sozialen onarpena edo eragina baino gehiago horien inguruko propaganda izan da oihartzunik handiena izan duena. Bizi-baldintzak nabarmen okertzen diren neurri berean saltzen dizkigute hobekuntza “historikoak”. Paradoxikoa dirudien arren, bere burua faxismoaren alternatibatzat aurkezten duen gobernu indarrean dagoen bitartean, ideologia faxistak modu azeleratuan ari dira zabaltzen. Gobernu honek, izan ere, lan-erreforma zein zigor kodearen erreforma atzerakoiak onartu ditu, edota inpaktu erreala baino propaganda izaera duten legeak onartu ditu, etxegabetzeen moratoria edo lan-erreforma kasu. Gainera, talde mertzenario fa-

xistei, desokupei kasu, bidea libre uzten die gobernuak, proletalگو zaugarrienaren aurka jazarpena eta intimidazioa erabili eta erasoak gauza ditzaten. Amildegi izugarria dago esaten dutenetik errealtatera. Langileriarentzat estatu soziala baino, kapitalen metaketa optimoa bermatu duen gobernuak izan da PSOE eta Podemosena. Horren adierazle dira enpresa handiak izaten ari diren irabazitasa historikoak eta, bitartean, gobernuak miseria kudeatzeko eta bake soziala bermatzeko izan duen gaitasuna.

LANGILE-BOTEREA ERAIKITZEKO BEHARRAZ

Burgesiak bere aurpegiarik demokratikoena goraldi ekonomikoko garaietan aurkeztu izan du, politika sozial zabalagoak, Ongizate Estatuak zein Eskubide Estatuak sortu ahal izan dituen garaietan. Garai horietan langile-alderdi zein sindikatuak bere instituzioetan txertatzea lortu izan du burgesiak, kontzesio politiko eta sozial batzuen truke, eta horrek, luzera,

burgesia demokratizatzea eta zuritzea dakar. Ordea, egindako kontzesio ekonomiko zein politikoak ez dira burgesiaren borondatearen ondorio, ezta langileen interesak burgesiarenara subordinatu eta sisteman integratu izanaren ondorio ere, baizik eta langile-alderdi eta antolakunde iraultzaileek indartsu borrokatu eta burgesia horretara derrigortu izanaren ondorio. Langileen bizi-baldintzetan izandako hobekuntza denak horrela lortu dira eta horrela ulertu behar ditugu, hau da, langileria iraultzaileen garaipen moduan, eta ez erreformismo parlamentarioaren pragmatismoaren ondorio gisa. Ordea, langile-mugimendu independenteak desagertu ahala, burgesia agerian uzten joan da bere aurpegiarik autoritarioena, eta, hala, gizartearen ordezkartzaren sinbolo izatetik zuzenean klase-dominaziorako tresna dela ezkutatzeari utzi dio.

Krisian dagoen sistema kapitalistaren joerei erreparaturaz, ordea, esan dezakegu azken hamarkadetan izan dituen erronkarik handien aurrean aurkitzen


dela gizateria: gerra global baten mehatxua gero eta errealagoa da, langileriaren pobretzea etengabea, natur baliabideen suntsipena muturrera heltzen ari dela dirudi eta estatu burgesak gero eta erreprezio gehiago eta zerbitzu gutxiago du proletalگوari eskaintzeko. Abagune historiko honetan, gainera, orain arte azaldu dugunez, burgesiaren alderdi guztiek errezeta bakarra eskaintzen diote proletalگوari: subordinazio politikoa eta miseria.

Testuinguru honek aukera historiko bat eskaintzen digu Mugimendu Sozialista indartsu bat beregituratzeko; aipaturiko auzi gako horien aurka, oligarkia internazionalaren programa bakarraren aurka, alternatiba erreala izango den proposamen komunista indartsua egikartzeko. Hau da, alternatiba politiko sozialista indartsu bat eraikitzea, fronte guztietan erreferentzialtasun politikoa irabazteko aukera emango diguna.

Burgesiak eskaintzen dizkigun etorkizun distopikoen artean aukeratzera mugatu ordeztu, askatasuna eta justizia oinarri izango dituen etorkizun bat gorpuztu behar dugu


Prozesu horrek arrakasta izango badu, komunismoak imaginario politiko hegemonikoaren mugak gaindituko dituelako izango da. Burgesiak eskaintzen dizkigun etorkizun distopikoen artean aukeratzera mugatu ordeztu, askatasuna eta justizia oinarri izango dituen etorkizun bat gorpuztu behar dugu. Horretarako, funtsezkoa da politika instituzio burgesen kudeaketa zuzenarekin lotzen duen zentzu komunarekin haustea. Izan ere, horrek posible diren aukera politiko guztiak irabazien birbanaketara zedarritzea eragiten du, eta, hortaz, politika ororen funtsa Kapitala betikotzera mugatzen du. Horren ordeztu, jopuntuan irabazi kapitalista osoaren espropiazioa jarriz gero, hots, langileriak berak sortzen duen aberastasunaren gaineko kontrol demokratikoa ziurtatzea badugu helburutzat, orduan agertuko zaizkigu aukera gisa kalitatezko eta doako zerbitzu unibertsalak. Era berean, irabaziena ez ezik, produkzioaren eta horretarako beharrezkoak diren bitartekoan kontrola ere ortzi-mugan jarriz gero, eta gizartearen beharrezkoen lotutako produkzio-sistema bat kontrajartzen badiogu merkatuaren beharrezko arabera antolatutako ereduari, posible izango da planetaren suntsipena etetea. Unibertsalak eta internazionalak diren proletarioaren beharrezko lehen lerrera ekarriz gero, gai izango gara mundua pikutara bidal dezakeen eskalada belikoari etena jartzeko. Premisa argi bat dago horretarako: iraultza sozialista antolatu behar da.

Norabide horretan lehen urrats gisa beharrezkoa zaigu nazioartean militante komunista sare indartsu bat sortzea eta proletarioak egun dituen erronka nagusiei erantzuteko programa komunista eguneratua osatzea. Hori txoko guztietako komunisten arteko eztabaida diziplinatu eta arrazional baten bitartez baino ez da posible izango. Bi mendetako langileria historiari erreparatu eta egindako hutsegiteak eta asmatutakoak behatu eta eguneratu behar ditugu. Era berean, mundu mailako fenomeno politikoak, ekonomikoak eta sozialak ulertu eta problematika horiei erantzuna emateko gai den pentsamendu-sistema oso bat eraikitzeari eta hegemonizatzeari ekin behar diogu.



Horretarako, ezinbestekoa da gaur egun alderdiek ordezkatzeko duten burokraten plantillari kontrajartzeko gai izango den borondate anitzen hari gorri berri bat. Soldadak eta ospeak mugituko gora nahien ordeztu, diziplinan eta konpromisoan oinarritutako masa militante oso bat. Izan ere, burgesiaren alderdi instituzionalek babesa bilatzen badute konpromisorik eta erantzukizunik gabeko hauteskunde-masan, proletario antolatuaren eta iraultzaileen egituratzeak dira alderdi komunistak. Finean, parte-hartze aktiboan eta ahalduzko politikoan oinarritutako egitura militanteak.

Burgesiak azken hamarkadetan izan duen garapen handienetako bat izan da gure ambizioa mugatzea, gure askatasunaren proiektzioa mutilatzea. Hauteskondeek horretan guztian funtsezko rola jokatzen dute, itxurazko alternatiba ezberdinak baino ez diren artean hautatzeko aukera soilik ematen baitigute. Irabazten duenak irabazten duela, betikoek irabaziko dute. Hainbat hamarkadaz hedatu den demokrazia eta askatasun liberalari kontrajarri behar dizkiogu errealak izango diren proletarioaren demokrazia eta askatasuna. Asko dugu irabazteko. ●



BALA ETA BOTOEN ARTEAN:

BOTERE POLITIKOA HARTZEKO TAKTIKA KOMUNISTA

Testua — **Arteka**
Irudia — **Amaiur Santxoierto**




“**I**raultza bat gerta dadin, oro har ez da nahikoa egoera sostengaezina izatea behekoentzat; horrez gain, ezinbestekoa da ezin bizi ahal izatea iraganean bezala”

-Lenin

“**I**nozoak izango gara espero badugu boltxebikeek gehiengo ‘formal’ bat eskuratuko dutela (...) Ezein iraultzak ez du espero halakorik”

-Lenin, 1917ko irailaren 13ko gutuna Komite Zentralari



Egia da botere politikoa bereganatu zuten mundu osoko alderdi komunistak hauteskundeetara aurkeztu zirela batzuetan, hau da, taktika parlamentarioak garatu zituztela une jakin batzuetan. Edonola ere, geure buruari galdetu beharko genioke ea hauteskundeetara aurkeztea *sine qua non* baldintza izan ote zen iraultza sozialistarako, edo, kontrakoa, proletariotzak botere politikoa eskuratzea antolakuntza-mailaren garapen hedatuago baten emaitza izan ote zen.

Hori aztertzeko, botere politikoa hartzeari eta Proletariotzaren Diktadurari buruz teoria marxistak emandako oinarritzko nozio teoriko batzuk hartuko ditugu abiapuntutzat. Ondoren, XX. mendean izandako Errusiako Iraultzaren dimentsio kuantitatiboa aztertuko dugu. Amaitzeko, modu enpirikoan egiaztatuko dugu noraino iritsi ziren Mendebaldeko alderdi komunista batzuk hauteskunderi eta militantziari dagokionez, eta arreta berezia jarriko diogu Italiako Alderdi Komunistari.



ESTATUARI ETA BOTERE POLITIKOARI BURUZKO TEORIA MARXISTA OROKORRA: PROLETARIOTZAREN DIKTADURA

Teoria marxistaren arabera, estatua emandako gizartearen klase menderatzailearen interesen arabera instituzio bat da. Karl Marxek estatua gizarte kapitalistetako burgesiaren “batzorde betearazle” edo “administrazio-kontseilu” izenekin deskribatu zuen, hau da, argudiatu zuen estatua arduratzen dela babesteaz eta sustatzeaz klase menderatzaileak une historiko bakoitzean dituen interesak, zeinak gizarte kapitalistan burgesiaren interesak baitira. Marxek, Friedrich Engels adiskideak bezala, esaten zuen azken buruan estatua biolentzian eta hertsaduran oinarritzen dela ordena soziala ezartzeko eta klase menderatzailearen interesak babesteko. Interes objektibo horiek legeen aplikazioan, sistema judizialean eta estatuak jabetza pribatuaren eta uneko klase-egituraren defentsan indar antolatuen monopolioa erabiltzeko duen gaitasunean azaleratzen dira.

Estatuaren ulerkera klasista horretatik, Marxek eta Engelsek ondorioztatu zuten estatua desagertu edo “agortu” egingo dela gizarte komunista batean, hots, klaserik gabeko gizarte batean. Ordea, egoera horretara iristeko, proposatu zuten historikoki premiazkoa zela “Proletariotzaren Diktadura”, hau da, aldi baterako garai bat, non proletariotzak estatuen kontrola hartzen duen botere burgesa suntsitzeko, ekoizpen-harremanak eraldatzeko eta komunismorantz aurrera egiteko.

Ondorioz, Marxek eta Engelsek demokrazia burgesa desestali zuten, esan baitzuten Kapitalak masa desjabetuen gainean aplikatzen duen diktadura ideologiaz eta politikaz mozorrotzen duen ameskeria dela demokrazia burgesa. Estatuaren azpiko egitura sozioekonomikoak klase menderatzaileak kontrolatzen dituela sinetsirik, uste zuten demokrazia burgesa ezin zela izan, haiek zioten bezala, “herritarren borondatea”, “borondate orokorra” eta “subiranotasun nazionala” islatzen dituen egiazko adierazle bat.

Ordea, egoera horretara iristeko, proposatu zuten historikoki premiazkoa zela “Proletariotzaren Diktadura”, hau da, aldi baterako garai bat, non proletariotzak estatuen kontrola hartzen duen botere burgesa suntsitzeko, ekoizpen-harremanak eraldatzeko eta komunismorantz aurrera egiteko

Norabide berean, Vladimir Illich Ulianov *Leninek* estatua “klase menderakuntzarako tresnatzat” hartu zuen. *Estatua eta Iraultza* lanean defendatu zuenez, iraultza proletarioak estatu-aparatua osorik suntsitzea ekarri behar du, eta ez besterik gabe instituzioen kontrola hartzea. Ondorioz, langile-kontseiluetan (sobietak) oinarritutako estatu mota berri bat sortzea proposatu zuen, demokrazia/diktadura proletarioaren formarik egiazkoena eta garatuena.

BOTERE POLITIKOA HARTZEARI BURUZKO DOKTRINA MARXISTA

Aurreko lerroetan zirriboratu den teoria orokorrari galdera hau dario: nola? Doktrina marxista klasikoa aha-legindu zen argitzen ea zein indarren bermea eduki behar duten proletarioek zehazki, eta ea nola prestatuta egon behar duten indar horiek botere politikoa hartzeko zereginari ekiteko. Zientzia subertsibo horren arloan, bereziki garrantzitsuak izan ziren masak mobilizatzeko zenbait moduren, propagandaren funtzioaren, eta, batez ere, antolaketa-elementuaren esperimentazioaren bitartez egindako aurkikuntzak –azken horrek Alderdiaren forma orokorrari buruzko teoria eta antolaketa-teknika zehatzenak biltzen zituen bere barnean–.

Komunismo modernoaren aitek era sakonean aztertu zituzten iraultza eta biolentzia eredu zehatz batzuk baztertzeko, baina ez zuten matxinada modu sistematikoan eta positiboan teorizatu. Hori bai, ideia orokor batzuk zirriboratu zituzten. Boltxebikeek bereganatu eta modu zabalagoan garatu zituzten ideia horietako batzuk: dimentsio politikoaren, sozialaren eta militarren batasuna; borroka iraultzaileko indar-harremanen eta baldintza objektiboen ebaluazioa; prozesu subertsibo baten ondoz ondoko urratsen azterketa; Burgesiaren Armadaren gainbehera moralaren eta materialaren faktorea; eta milizia proletarioko ofizialen zuzendaritzapean herri xehearren armatzea eta heziketa.^[1] Alemanian 1848an eta 1849an izandako esperientzia iraultzaileak eman zituen ikasgaiak kontuan hartuta, Engelsek adierazi zuen “matxinada gerra bezalako artea zela”, eta, hortaz, “prozedura-arau jakin batzuk” bete behar zituela. Oinarrizko aholkua zen “ez hastea matxinada antolakunde iraultzailea matxinadaren ondorio guztiei aurre egiteko erabat prestatuta egon arte”, eta, matxinada hasitakoan, ezinbestekoa zen erasoaldiari eustea kosta ahala kosta^[2].

Idea horien eta, geroago, Errusian egindako zehaztapen teoriko politikoa-ren argitara, Urriko Iraultza Sozialista Handiak Europa osoa eta mundu osoa astindu zituen, eta erakutsi zuen sozialismora iristeko bide iraultzaileak gaurkotasun osoa zuela. Boltxebikeen antolakuntza-makineria izan zen, praktikan eta matxinadari buruz era argian-formulatutako doktrina jarraituz boterea bereganatu zuen alderdi politiko bakarrenetako bat. Horrela, estatua hartzeko modu bortitzari buruzko teoria marxista gaurkotu eta zehaztu zuen, eta antolaketa-gorputza eman zion^[3]. Leninek beste maila bat eman zion Marxen eta Engelsen iraultza “arte” gisa ulertzeko ikusmoldeari, eta honako printzipio hau baieztatu zuen: “Ezinezkoa da marxismoari eta iraultzari leialtasunez eustea matxinada artetzat hartzen ez bada”^[4]. Hortaz, matxinadaren ideia boltxebikea masa-mugimenduei lotutako egoera iraultzaileen kate luze bateko kate-begi gisa ulertzen zen. 1915eko *Bigarren Internazionalaren Porrota* liburuxkan, lider iraultzaileak hiru zantzu edo baldintza ezarri zituen egoera historiko bat “aurre-iraultzaile” gisa definitzeko^[5]:

- 1-. Klase agintariaren barne-krisia.
- 2-. Klase menderatuen oinazeak eta gabeziak ezohiko eran larritzea.
- 3-. Aurreko egoeren eraginagatik, masen jarduera modu nabarmenean handitzea.

Hala ere, Leninek beti nabarmendu zuen “egoera iraultzaile guztiek ez dutela nahitaez iraultza bat sortzen”. Hain zuzen ere, “iraultza gerta dadin, aurreko hiru faktoreei faktore subjektiboa gehitu behar zaie, hau da, klase iraultzailearen *gaitasuna*, zeinak lehengo gobernua apurtzeko edo pitzatzeko behar bezain indartsua izan behar baitu; izan ere, lehengo gobernua krisi betearen egonda ere, “ez da eroriko erorarazten ez bada”^[6]. Internazional Komunistaren buruek *Matxinada armatua* obran gogorarazten duten bezala, Leninek ez zuen inoiz matxinada ekintza isolatu gisa ulertu, klase-borrokaen beste une estrategikoekin harremanik gabekoa balitz bezala. “Matxinada prestatzen da herri bateko klase-borroka guztiekin batera; borroka horien jarraipen organikoa besterik ez da”^[7], azpimarratu zuten. Are gehiago, honako hau uste zuten, are argitasun kontzeptual handiagoarekin: “Alderdi iraultzailearen jarduera guztia, tartean bakearen aldeko borroka, eskuhartze inperialistaren kontrakoa (Txinan, SESBen eta abarretan), prestatzen ari diren gerra inperialisten kontrakoa (Europar, Amerikan eta abarretan), arrazionalizazio kapitalistaren kontrakoa, soldata igoeraren aldekoa, aseguru sozial orokorren aldekoa, proletarioen bizi-maila handiagotzearen aldekoa, lurraren nazionalizazioaren aldekoa, borroka parlamentarioa, eta abar; hori guztia bideratu behar da masak prestatzera eta mobilizatzerairaultza-prozesuaren borroka-maila goragoko baterako, matxinadarako”^[8].

Boltxebikeen antolakuntza-makineria izan zen, praktikan eta matxinadari buruz era argian formulatutako doktrina jarraituz boterea bereganatu zuen alderdi politiko bakarrenetako bat. Horrela, estatua hartzeko modu bortitzari buruzko teoria marxista gaurkotu eta zehaztu zuen, eta antolaketa-gorputza eman zion

Hala eta guztiz ere, matxinadaren arrakastarako ezinbesteko baldintzak teoriarik definituta dauden arren, praktikan oso zaila izan da historian zehar egoera iraultzaileak zer heldutasun-maila duen antzematea, eta, ondorioz, matxinada hasteko une egokia zein den erabakitzea. “Matxinada hasteko dataren arazoak berebiziko garrantzia dauka”, onartzen zuten Internazional Komunistaren buruzagiek^[9]. Eta ez da gutxiagorako, dataren arazoa izan baita iraultza arrakastatsuen eta porrot egin dutenen arteko aldea markatu duen faktore garrantzitsuenetako bat. Jarraian, 1917ko Urriko Iraultza Sozialista Handia behatzeari ekingo diogu, eta arreta bereziarekin erreparatuko diegu boltxebikeek botere politikoa hartzeko bilbatu zuen prozesuari eta horretarako izan zituzten giza baliabideei.



URRIKO IRAULTZA (1917)

Boltxebikeek, Leninen gidaritzapean, Estatuko Dumarako (Errusiako Parlamentua) hauteskunde batzuetan eta Batzar Konstituziogileko hauteskundeetan parte hartu zuten 1917ko Urriko Iraultzaren ondoren. Ordea, boltxebikeek Errusia iraultzailean hartu zuten taktika elektoral “baketsuak” gutxi iraun zuen, eta ez zen inoiz egon beste lehentasun estrategikoen gainetik, hala nola sobietetan (langileen kontseilu independenteak) parte hartzearen edo matxinada prestatzearen gainetik.

Ez da ahaztu behar Errusian *botere dual* argia zegoela Otsaileko Iraultzaren ondoren: langileen kontseiluen boterea eta estatu post-tsaristaren aparatu ofizialarena. Testuinguru horretan Oskar Anweilerrek gogora ekartzen du *Sobietak Errusian* obran nola boltxebikeek norabide dualari jarraitu zioten boterera iritsi aurretik: “Alde batetik, sobietean gehiengoa lortzeko, programa propioa hedatzen eta behin-behineko gobernuaren aurkako borroka erruki-gabean jarduten zuten; eta, beste alde batetik, kontseilu sozialista moderatuek boterea hartzea exijitzen zuten”^[10]. Taktika horrek logika argi bati erantzuten zion; izan ere, boltxebikeen buruzagiek bazekiten sozialista moderatuek gobernua hartzen bazuten ez zutela beteko masa zabalek eskatzen zuten minimoen programa ere. Ezohiko egoera objektiboki iraultzaile hartan, uste zuten sobietetan (ez Duman) gehiengoa izateko bidea erraztuko zietela fronteko soldaduen bake nahiak, nekazarien goseak eta langileek zuten asaldurak, eta gehiengo horrekin sozialista moderatuen behin-behineko gobernua kargugabetzera ere iritsiko zirela. Plan horrek, Iosif Stalinek gogora ekartzen zuenez, “ez zuen, jakina, Proletariotza-ren Diktadura berez ezartzen, baina ez-bairik gabe erraztu egiten zuen dikadura bermatzeko behar ziren baldintzak sortzea. Izan ere, planak mentxebikeak

eta sozio-iraultzaileak boterean jartzen zituen, eta haien programa antiiraultzailea praxian gauzatzera behartzen zituen, eta horrek azkartu egingo zuen alderdi horien benetako errealitatea agerian uztea; haien isolamendua, haien masekiko atxikimendu falta”^[11].

Taktika horrek ez zuen esan nahi, inondik inora, iraultzaren izaera bortitzari buruzko funtsezko uste boltxebikeei uko egiten zitzaienik, baizik eta une jakin batean zera pentsatu zutela: proletariotza iraultzailearen Alderdia jada independentzia politikorako bidean egonda eta masen bultzada indartsu batekin, matxinada bat egin beharrik gabe agintera iristeko abagune berezia sortuko zela. Berehala egiaztatu ahal izan zuten ez zela posible izan, eta ez ziren tematu taktika hori gehiago luzatzen. Horrela, Anweilerrek gogora ekartzen du “hori Leninek aholkatu eta hedatu zuela soilik Errusian 1917ko udaberrian gertatu ziren baldintza berezietan”^[12]. Gainerakoan, lider boltxebikeak argi utzi zuen gerra zibila zela iraultza sozialistara iristeko bide arrunta, eta “bide baketsua” salbuespena baino ez zela^[13]. Bestalde, boltxebikeen botere-hartze bake-tsuaen hipotesiak ere ez zituen inoiz baztertu beharrezko neurri errepresiboak klase etsaien eta traidoreen aurka.

Gainerakoan, lider boltxebikeak argi utzi zuen gerra zibila zela iraultza sozialistara iristeko bide arrunta, eta “bide baketsua” salbuespena baino ez zela

1917ko urriko hilean bertantxe, gutxienez 400.000 kide zituen Alderdi Boltxebikeak; hau da, Leninek eta bere kamaradek boterea hartzeko Errusiako Inperioko populazioaren zati baten babes zuzena, aktibatua eta antolatua izan zuten, baina populazio zati horren portzentajea ez zen izan %0,3koa baino askoz handiagoa

Iraultzaren unean boltxebikeek zeukaten antolatzeko indarraren dimentsio kuantitatiboari dagokionez, aipa daiteke 1917ko abuztura arte gutxiengo batek baino ez zuela bat egiten boltxebikeekin Errusian. Are gehiago, Anweilerrek adierazten du “talderik txikiena zela hiru alderdi sozialista handienen artean”, bai sobietetan zuten ordezkaritzan, bai hiri-eta landa-parlamentu ofizialetako ordezkaritzan”^[14]. Urriko Iraultza baino sei hilabete lehenago, 1917ko apirilean, Leninek zuzentzen zuen alderdiko kideak 80.000 inguru ziren (garai hartako Errusiako populazio osoaren %0,06), eta, abuztuan, boterea hartzeko bi hilabete baino falta ez zirela, harritzeko moduko kopurura iritsi ziren, 240.000 militante izatera; hala ere, kantitate hori Errusiako populazioaren %0,18 baino ez zen^[15]. Handik gutxira, Alderdi Boltxebikearen Batzorde Zentralaren bile-ra-akta batean jasota dagoenaren arabera^[16], 1917ko urriko hilean bertantxe, gutxienez 400.000 kide zituen Alderdi Boltxebikeak; hau da, Leninek eta bere kamaradek boterea hartzeko Errusiako Inperioko populazioaren zati baten babes zuzena, aktibatua eta antolatua izan zuten, baina populazio zati horren portzentajea ez zen izan %0,3koa baino askoz handiagoa.

Beraz, lehen erakutsitako baldintza historikoak eta gutxieneko faktore kuantitatibo absolutua soilik ez badira nahikoa botere politikoaren konkista azaltzeko, zein beste elementuk egin zuten boltxebikeen arrakastaren alde? In-

dar militantearen antolaketa estrategikoa eta kualitatiboak eta jarraitzaileen sarearen hedapenak lagun diezagukete ideia bat egiten. Alde batetik, aipatzekoa da militanteen sare horren indartzea eta boltxebikeen ospea bereziki landaguneetako eta hiriburuetako zona industrializatuenetan gertatu zirela, batez ere industria-proletarioen artean. Beste alde batetik, boltxebikeek zuten babesa handitu egin zen behin-behineko gobernuak bere gaitasun eta borondate eza erakusten zituen heinean. Izan ere, argi erakusten zuen ez zeukala ez gaitasunik ez borondaterik bere gain hartzeko Errusiako Inperioaren hondakinen azpian sarraskitutako eta menperatutako masa gosetuak laguntzeko zereginik beharrezkoenak. Ordurako ezin zitzaion botereari eutsi gogorkeria erabilia; are gehiago, Kornilov jeneralak 1917ko uztailean emandako estatu-kolpearen aurrean boltxebikeek aurrera eraman zuten erresistentzia sendoak komunisten itzala handitu baino ez zuen egin. Erresistentzia horrekin batera, boltxebikeek “bakea, lurra eta ogia” aldarrikatu zuten. Horrela, 1917ko abuztuaren amaieraren eta irailaren hasieraren artean,

Militante boltxebike bakoitzarekin 20, 30 edota 50 ‘boltxebike’ ere elkartzen ziren, eta kide horiek ez ziren alderdiko kideak, jarraitzaileak baizik

boltxebismoa masa-mugimendu handi bihurtu zen. Anweilerrek Alderdi Boltxebikeko jarraitzaile taldearen estimazio batekin azaltzen du: “Militante boltxebike bakoitzarekin 20, 30 edota 50 ‘boltxebike’ ere elkartzen ziren, eta kide horiek ez ziren alderdiko kideak, jarraitzaileak baizik”^[17]. Horrek esan nahi du, alderdi-kide bakoitzeko 20 jarraitzaile-ren erreferentzia apala erreferentziaztat hartuta, 1917ko urrian gutxienez 8 milioi pertsonak babesten zituztela boltxebikeak, eta, hortaz, oinarri sozial bat izan zezaketela, pertsona horiek guztiak kide organikoak ez baziren ere. Hori orduko Errusiako populazioaren %6 zen. Gogora dezagun, populazioaren %6 hori Errusiako garapen kapitalistarako garrantzi estrategikoa zeukaten posizio geografiko, ekonomiko eta sozialetan kokatuta zegoen. Anweilerrek xehetasun gehiago ematen ditu gaiari buruz:

“Fabriketako batzorde gehienak boltxebikeak ziren Petersburgon eta Moskun, Uralen eta Donec haranean 1917ko udaz geroztik. Eta baita sindikatuak ere, zeinak Iraultzaren lehen hilabeteetan mentxebikeen menpekoak baitziren, udazkenean urratsez urrats pasatu ziren boltxebikeen eraginpera. Errusia osoko biltzar sindikalistan (1917ko ekaina) boltxebikeek delegatuen %36,4 besterik ez zituzten euren alde 117 delegatu sindikalisten artean, eta, iraileko Biltzar Demokratikoan, aldiz, %58 ziren boltxebikeak eta %38,4 mentxebikeak eta eskuineko sozio-iraultzaileak. Urriaren bezperan, industria-hiri handietako ia sindikatu guztiak Leninen alderdiarekin zeuden, salbu eta trenbide elkarte garrantzitsua, posta-sindikatuak, telegrafoak eta inprimatzaileak”^[18].

Testuinguru hartan, Leninek eba-luatuak zituen Errusiako barne-krisia eta nazioarteko egoera, eta ondorioztatu zuen egoera nahikoa heldua zegoela boltxebikeek berehala boterea har zezaten. Une historiko berezi haren garrantzi handiaren ikuspegi argi eta kontziente izanda, konbentzituta zegoen matxinada politikoki beharrezkoa zela, eta berehalako prestaketa praktikoa behar zuela. Horretarako, baina, oztopoak aurkitu zituen, baita Alderdi Boltxebikearen Batzorde Zentralean bertan ere. Aurka zeudenak isolatuz eta zalantzan zeudenak erakarriz gainditu behar izan zituen oztopo horiek.

Irailaren 13an Batzorde Zentralari *Marxismoa eta altxamendua* izenburuarekin idatzitako gutunean, Leninek oportunistak izatea leporatu zien baldintza objektibo egokietan matxinada artetzat hartzeari muzin egiten ziote-nei. Prestatutako altxamenduaren alderdi teknikoan erabat zentratuta zegoen, eta beldur zen beranduegi izango ote zen. Une hartantxe ez zion garrantziarik ematen Iraultzaren gehiengo demokratikoari buruzko ikerketari, eta altxamendua legezkoa izateak ala ez izateak ez zion batere axolarik. Altxamenduak ezin zuen itxaron, ezta Errusia osoko sobieten II. Biltzarraren bilera egin arte ere; “katastrofikotzat” jotzen zuen ordura arte atzeratzea. Alderdiari idatzitako gutun gogor batean zain egotearen jarrera “erabateko ergelkeriatzat edo erabateko traiziotzat” jotzera iritsi zen: baldintzak ezarrita zeuden, lehenik Kerenskiren behin-behineko gobernua zapaldu behar zen, eta gero Sobieten Kongresurako deia egin behar zen.

Leninentzat, une hartan, organo sobietar gorenak ez ziren erabakigarriak, eta kontseiluak *altxamendurako organoak* zirelako bere antzinako ideia bererratu zuen. *Botere osoa sobientzat* eslogana zen, une hartan eta inoiz baino gehiago, matxinadarako deia. Bazekien kontseiluek eginkizun praktikoa bete behar zutela altxamenduan, baina kontseiluetako gehiengoaren izaera likidoa zela eta, Leninek defendatzen zuen Al-

derdi Boltxebikeak era independentean zuzendu behar zuela altxamenduaren prestaketa praktikoa, hain zuzen ere, sobietetan indartsuenak ziren une zehatzean. Oro har, urriko altxamendurako Leninen ulerkerak esan nahi zuen Alderdi Boltxebikeak burutuko zuela matxinada, eta kontseiluek berretsiko zutela botere-hartze hori.

Horren guztiaren ondoren, ulertzen has gaitezke zergatik burgesiaren hauteskundeetan gehiengo formala izatea bera ere ez zen ezinbesteko elementua boltxebikeek boterea lor zezaten. Datuei lotuz, Urriko Iraultzaren ondorengo Batzar Konstituziogilerako egin ziren bozketetan, emaitzak honela banatu ziren botoetan eta eserlekuetan ^[20]:

Sozio-iraultzaile errusiarrak	15.848.004
Sozio-iraultzaile ukrainarrak	1.286.157
Sozialista ukrainarren koalizioa	3.556.581
Sozio-iraultzaileak eta jarraitzaileak osotara	20.690.742
Boltxebikeak	9.844.637
Mentxebikeak	1.364.826
Beste sozialista batzuk	601.707
Demokrata konstituzionalak	1.986.601
Talde kontserbadore errusiarrak	1.262.418
Talde nazionalistak	2.620.967

1. taula: Urriko Iraultzaren ondoren Errusian Batzar Konstituziogilerako egin ziren hauteskundearen emaitzak, bototan

Sozio-iraultzaile errusiarrak	299
Sozio-iraultzaile ukrainarrak	81
Ezkerreko sozio-iraultzaileak	39
Boltxebikeak	168
Mentxebikeak	18
Beste sozialista batzuk	4
Demokrata konstituzionalak	15
Kontserbadoreak	2
Talde nazionalistak	77

2. taula: Urriko Iraultzaren ondoren Errusian Batzar Konstituziogilerako egin ziren hauteskundearen emaitzak, eserlekutan

“Botere osoa sobientzat” eslogana zen, une hartan eta inoiz baino gehiago, matxinadarako deia. Bazekien kontseiluek eginkizun praktikoa bete behar zutela altxamenduan, baina kontseiluetako gehiengoaren izaera likidoa zela eta, Leninek defendatzen zuen Alderdi Boltxebikeak era independentean zuzendu behar zuela altxamenduaren prestaketa praktikoa, hain zuzen ere, sobietetan indartsuenak ziren une zehatzean





Batzar Konstituziogilerako hauteskundeetan boltxebikeek ez zituzten lortu esperotako botoak: hori bai, %23,9 lortu zituzten, bigarren alderdirik indartsuena izan ziren, eta hauteskunde haietan boltxebikeen boto-emaileen kopurua alderdian afiliatuen kopurua baino 24 aldiz handiagoa izan zen

Proletarioen altxamendu armatuek, berriz, langileen babes nabarmena zuten tokian toki, erraz lortzen zuten ordena burgesaren indarrak garaitzea, baita matxinoak askoz ere kopuru txikiagoa izanik ere

Batzar Konstituziogilerako hauteskundeetan boltxebikeek ez zituzten lortu esperotako botoak: hori bai, %23,9 lortu zituzten, bigarren alderdirik indartsuena izan ziren, eta hauteskunde haietan boltxebikeen boto-emaileen kopurua alderdian afiliatuen kopurua baino 24 aldiz handiagoa izan zen, Errusiako populazioaren gehiengoaren ez arren. Txanponaren beste aldean, hauteskunde haiek agerian utzi zuten boltxebikeek taktika parlamentarioaren alde egitearen kausa ulertzen laguntzen duen egoera bat: Errusiako herritar gehienek begiko zuten sozialismoa, alderdi sozialista desberdinak hauteskundeetara aurkeztuak ziren, eta, hain zuzen ere, biztanleriaren 4/5en babesa lortua zuten. Horien artean, boltxebikeek gutxi gorabehera botoen laurden bat baino ez zuten lortu maila nazionalen, baina babes horren dimentsio kualitatiboak errealitate desberdin eta erabakigarri bat utzi zuen agerian klaseen arteko borrokan indar orokorren korrelaziorako (ez hauteskundeetan). Boltxebikeek gehiengo erlatiboa edo absolutua lortu zuten hiri handietan, ingurabide industrietan eta herrialdearen barrualdeko garnizio militarretan –hirugarren hori bereziki garrantzitsua da-. Horrez

gain, eragin handia zuten iparraldeko frontean, ipar-mendebaldean eta Baltikoko flotan. Armadaren boto osoaren %41 lortu zuten^[21], eta hori ez da huskeria, oso ageriko esanahia baitu. Hori bai, gogoan izan behar da armada garaikideak ez bezala 1917ko Errusiako armada ez zela profesionala: %85 ofizialordeak eta soldadu xeheak ziren^[22], eta jatorriz nagusiki proletarioak edota nekazari pobreak. Euren gotorlekutik kanpo, boltxebikeek eragina izan zuten erdialdeko lurraldeetan, ipar-mendebaldekoetan, eta baita Errusia zurian bizi ziren nekazari batzuen artean ere.

Hauteskundeetako emaitzen eta tokiko sobietetan alderdiek zuten indarraren arteko korrelazioak adierazten zuen lotura argia zuela hirietako langileen eta soldaduen kontseiluetako gehiengoaren artean. Aitzitik, nekazarien erakundeetako sozio-iraultzaileen nagusitasuna hauteskundeetan nekazaritza-eremuetan zeukatzen arrakastan islatzen zen. Anweilerrek ondorioztatzen du, funtsean, hauteskundeetako emaitzek eratzten ari zen gerra zibileko indarren kokapen geografikoa aurreratzen zutela: “Boltxebikeek erdigunea okupatzen zuten, eta oposizioak periferiatik jardun behar zuten”^[24].

Jarraian, boltxebikeek Batzar Konstituziogilea desegin zuten, eta Sobieten Kongresua eratu zuten. Era horretan, erakutsi zuten paradoxikoki neurri berekoa dela iraultza bat “parlamentutik” planteatzeko behar den indarra eta hura desegiteko behar dena. Horrela, trantsizio fasea amaitu zen, 1917ko urrian boltxebikeek boterea hartu zutenetik estatu-ordena berria sendotu arteko fasea: demokrazia burgesak porrot egin zuen proletario-tza iraultzailearen aurrean. Gainera, oso protesta gutxi egon zen boltxebikeek hartu zituzten lehen neurrien aurka. Izan ere, nekazari- eta langile-masek, zeinentzat Batzorde Konstituziogilea beti erakunde urrun eta abstraktua izan baitzen, hobeto onartu zituzten gobernu iraultzailearen neurri praktikoko zehatzak benetako eraginik gabeko Batzorde Konstituziogilearen erabaki teorikoak baino^[25].

Leninentzat eta boltxebikeentzat, beraz, Batzorde Konstituziogilean faktore erabakigarria beti izan zen ea norke ordezkatzen zuen benetako indar politikoa, indar politiko *erreal*a. Hau da, ez zenbat boto zituen, ezpada zer zegoen boto horien atzean, zer bitarteko zeuzkan bere atzean. “Batzorde Konstituziogilearen auzia burgesiaren eta proletariotzaren arteko klase-borroka auzia da; hau da, bi horien arteko borrokaren garapenaren eta emaitzaren mende dago”, zioen Leninek 1917ko uztailearen amaierako idatzian^[26]. Garaiko liburuxka boltxebike oso ezagun batek are argiago azaldu zuen: “Batzorde Konstituziogileak Petersburgon elkartu behar du, herri iraultzaileak eta, batez ere, tropa iraultzaileak kontrolpean izan dezaten, eta harengan presioa egin ahal izan dezaten”^[28].

MATXINADA-SAIAKERA

Errusiako Urriko Iraultza Handiak oihartzun handia izan zuen Europan eta mundu osoan, eta katalizatzaile moduan funtzionatu zuen leku guztietan artikulatzen ari ziren mugimendu iraultzaileentzat. Une aproposa sortu zen agitaziorako eta aldaketa erradikalak bilatzeko, hau baitzen testuingurua: Lehenengo Mundu Gerrak hondamena utzi zuen, erregimen autoritarioak desegonkor zeuden, eta langile-klaseak instituzio burgesekiko desconfiantza eta atsekabea zituen. Orduan, Internazional Komunistak iraultza Europan azkar heda zedila proposatu zuen; proletarioen zenbait altxamendu armatu izan ziren, eta lehenengo alderdi komunistak artikulatu ziren. Hauteskundeei dagokienez, XX. mendearen lehenengo iraultza-aldian, komunistak oso epe laburretan aurkeztu ziren hauteskundeetara, hura tresna moduan erabiliz eta beti oso baldintza zorrotzen pean; helburuak ondo zehaztuta, altxamendurako aukera inoiz baztertu gabe, eta, beraz, altxamendurako aukera hori prestatzen zuten bitartean.

Proletarioen altxamendu armatuek, berriz, langileen babes nabarmena zuten tokian toki, erraz lortzen zuten ordena burgesaren indarrak garaitzea, baita matxinoak askoz ere kopuru txikiagoa izanik ere. Alabaina, garapen txikiagoa zuten estatu modernoek ere matxinadak itotzen zituzten armadaren laguntzaz, antolakunde iraultzaileak ez baziren ekintza-batasunez aritzen edo ez bazuten langile-biztanleriaren babesik. Europa mendebaldeko iraultza-saiakerek porrot egin izanagatik, borroka-ziklo hura baliagarria izan zen Europako lehenengo alderdi komunisten militantzia-oinarria eratzeko.

ALDERDIA	URTEA	AFILIATUAK
Alemania ko Alderdi Komunista (KPD)	1918	106.656
Austria ko Alderdi Komunista (KPÖ)	1918	3.000
Belgika ko Alderdi Komunista	1921	517
Txekoslovakiako Alderdi Komunista (KSC)	1921	170.000
Danimarka ko Alderdi Komunista (DKP)	1920	25.000
Espainia ko Alderdi Komunista (PCE)	1919	1.000
Finlandia ko Alderdi Sozialista Langilea (SSTP)	1920	2.500
Frantziako Alderdi Komunista (PCF)	1920	109.000
Britainia Handiko Alderdi Komunista (CPGB)	1920	3.000
Italiako Alderdi Komunista (PCI)	1921	70.000
Luxenburgoko Alderdi Komunista (CPL)	1921	500
Norvegiako Alderdi Komunista (NKP)	1923	16.000
Holandako Alderdi Komunista (CPH)	1918	1.799
Errumaniako Alderdi Komunista (PCR)	1921	2.000
Suediako Alderdi Komunista (SKP)	1921	14.000
Greziako Alderdi Sozialista Langilea-Alderdi Komunista (SEKE-K)	1920	1.320

3. taula: Europako alderdi komunista batzuen sorrera-uneko afiliatuen zifrak ^[29].

SABAI PARLAMENTARIOA

Mendearen hasierako iraultza-erasoaldiaren amaieran, III. Internazionalak ondorioztatu zuen Mendebaldea ja da ez zegoela iraultza-egoera objektibo batean, eta, beraz, posizio defentsiboa hartu beharrean zela. Testuinguru horretan, eta masek bizkar emango zien beldur, komunistak, beste gauza batzuen artean, taktika parlamentarioaren aldeko apustua egiten hasi ziren.

Bigarren Mundu Gerran militantzia komunistak milizia antifaxistetan egin zuen alimaleko esfortzuaren ondoren, alderdi komunistek hain zuten ospe ona Europan, ezen III. Internazionalak interpretatu baitzuen posible zela hauteskundeen bidez boterea eskuratzea.

Oro har, gerraosteko aldi hartan, alderdi komunistek inoiz baino babes handiagoa izan zuten hauteskundeetan, eta gerraren aurretik izandako militante kopurua handitu zuten. Kasurik onenean, botoen herena lortu zuten, eta ia gobernua lortu. Ordea, AEBek eta Europako burgesiak ito egin zuten aukera hori, xantaia finantzarioa, propaganda antikomunista masiboa eta terrorismo-kanpainak erabiliz, baita batzuetan haiek legez kanpo utziz ere. Frantziako Alderdi Komunistari (PCF), adibidez, nahiz eta berak lortu zuen boto gehien 1946ko hauteskundeetan, betoa jarri zioten gobernuan sar ez zedin, eta Alemaniako KPD legez kanpo utzi zuten 1956an.

Ikus daitekeenez, alderdi komunista batzuek, boltxebikeek 1917an lorturiko emaitzak baino hobeak lortuta ere, ez zuten lortu boterera iristea ez bide “demokratikotik” ezta matxinda bidez ere. Taktika parlamentarioa, ordea, urte luzez erabili zuten Gerra Hotzean zehar, baina ez zuen aurreikusitako helbururik eman, eta higadura handia eragin zuen alderdi komunistetan. Italiako Alderdi Komunista izan zen gerraostean hauteskunde-indarrari eutsi zion bakarra, eta, are, hura gainditzea lortu zuena. Hala eta guztiz ere, eta nahiz eta Europa mendebaldeko alderdi komunistarik indartsuena izan, hauteskundeetan gora egiteak ez zuen sendotu maila sozialean eta militantziari dagokionez, baizik eta kontrakoa: printzipioak eta kideak etengabe galdu zituen, harik eta desegin zen arte. Gainerako masa-alderdi komunistek –Italiakoa baino askoz ere ahulagoak– bide bertsua urratu zuten: beren kapital politiko eta giza kapital osoa integratu eta irentsi zuten estatu burgesek. Boltxebismoaren oinordeko zuzenak ziren horiek; borroka partisansoan sekulako ahalegina egin zutenak gerran bertan eta klandestinitatean; milioika proletario beren lerroetan antolatu zituztenak muturreko egoeretan, eta dozenaka gobernu ataka estuan jarri zituzten horiek, ez zioten eutsi elektoralismoari.

Oro har, gerraosteko aldi hartan, alderdi komunistek inoiz baino babes handiagoa izan zuten hauteskundeetan, eta gerraren aurretik izandako militante kopurua handitu zuten. Kasurik onenean, botoen herena lortu zuten, eta ia gobernua lortu. Ordea, AEBek eta Europako burgesiak ito egin zuten aukera hori, xantaia finantzarioa, propaganda antikomunista masiboa eta terrorismo-kanpainak erabiliz, baita batzuetan haiek legez kanpo utziz ere


HERRIALDEA	HAUTESKUNDE-URTEA	BOTOEN EHUNEKOA
Austria	1945	5,4 %
Belgika	1946	12,7 %
Txekoslovakia	1946	37,9 %
Danimarka	1945	12,5 %
Finlandia	1945	23,5 %
Frantzia	1946	28,26 %
Hungria	1945	16,9 %
Islandia	1946	19,5 %
Italia	1946	19,0 %
Luxemburgo	1945	13,5 %
Norvegia	1945	11,9 %
Herbehereak	1946	10,6 %
Alemania ko Errepublika Federala	1949	5,7 %
Suedia	1944	10,3 %
Suitza	1947	5,1 %

4. taula: Alderdi komunistek gerraosteko lehenengo hauteskundeetan lorturiko botoen ehunekoa ^[30].


Alderdi komunista batzuek, boltxebikeek 1917an lorturiko emaitzak baino hobeak lortuta ere, ez zuten lortu boterera iristea ez bide “demokratikotik” ezta matxinada bidez ere. Taktika parlamentarioa, ordea, urte luzez erabili zuten Gerra Hotzean zehar, baina ez zuen aurreikusitako helbururik eman, eta higadura handia eragin zuen alderdi komunistetan

XX. mendeko historiak erakusten duenez, baliteke hauteskundeetako parte-hartzeak aukera irekitzea (edo oportunitatea, hobeto esanda) printzipio ideologiko batzuetan beheratzeko, helburu taktizista batekin: antolakunde komunistek nozitzen duten hauteskunde-blokeoa apurtzea. Gauzak horrela, helburu zena (iraultza) plano estetikorik baztertuta gelditzen da, eta, aldiz, bitartekoak izan beharko lirakeenak (hauteskundeak) beren horretan helburu izatera igarotzen dira. Alderdiok hauteskunde-zikloak lehentasun moduan eta era mugagabeen erabiltzen hasten direnean, horrek militantzia baldintzatzen du, bai hazkundeari dagokionez (kuantitaboa eta kualitatiboa), baita haren aplikazio politikoa dago-kionez ere.

Gainera, hain da tranpatia demokrazia burgesaren hauteskunde-jokoa, ezen alderdi komunistek gehiengoa lortzen dutenean ere –konstituzioaren joko-arauak errespetatuz, beren ekintza-esparrua mugatuz eta batzuetan baita erreformismoarekin koalizioan aurkeztuz ere–, burgesiaren botereak (egiazko botereak) maniobra antidemokratikoak egiten baititu komunistak gobernuetatik kanporatzeko, izan beto edo presio bidez gerraosteko Europan gertatu zen moduan, izan estatu-kolpeen bidez, edo izan antolakunde iraultzaileen aurkako sarraskien bidez, Txilen eta Indonesian gertatu zen bezala. Bestela esanda, XX. mende luzeko esperientziak erakutsi du sozialismora bide demokratiko-burgesetatik iristea sinpleki ezinezkoa dela.



1. **grafikoa:** Italiako Alderdi Komunistaren bozkatzaileen kopurua kongresuko hauteskundeetan, 1921-1987. Iturria - Wikipedia.



2. **grafikoa:** Italiako Alderdi Komunistaren afiliatu kopurua, 1921-1989. Iturria - Wikipedia

ONDORIOAK

Ondorio modura, iraultza-prozesuaren azterlan historiko kuantitatibo baterako hurbilpen honetan argi ikusi da alderdi komunistetako kideen kuantitate erlatiboa ez dela botere politikoa eskuratzeko elementu erabakigarria; edo, gutxienez, ez erreformismoak planteatzen duen moduan, indar politiko hegemonikoa eraikitze ezinbesteko baldintzatzat jotzen baitu “%99” edo “gehiengoa” lortzea. Komunismoaren historian adibide enpirikoetan ikus daiteke ez dela beharrezkoa hauteskunde burgesetan botoen gehiengoa eskuratzeko, eta haren garaipena ez dagoela boto kopuruaren mende. Kontrara, ikusi dugu iraultzaren dimentsio kuantitatiboa ez duela arautzen edo markatzen parlamentarismoak, baizik eta Alderdi Komunistako proletariotzaren antolakuntza-teknikak. Horrek argi erakusten du oportunistak dela aurreiritziz

esatea hauteskundeak “indarrak neurtzeko tresna” direla, edo “iraultza egiteko beharrezkoa” dela “gehiengoa lortzea hauteskundeetan”.

Ezin daiteke esan alderdi komunistek lortu zuten babes eta antolakuntzamaile handia alderdiok hauteskundeetan parte hartzearen ondorio izan zirenik; heziketa politikoa, agitazioari eta borrokari loturiko bestelako lan batzuen ondorio izan ziren, kontzientzia sozialistaren argitasun teoriko eta koiunturalez gauzatu baitzituzten lan horiek. Esanguratsua da, Europan alderdi komunisten antolakuntzaren goren unea hauteskunderik ez zuten diktadura faxisten pean gertatu izana; eta, Europatik kanpo, alderdi komunistak indartu izana, nagusiki, borroka anticolonialen eta estatu inperialisten eta haien lekuko txotxongiloen aurkako gerra zibilen testuinguruan, Txinaren kasuan ikus daitekeenez. ●

Komunismoaren historian adibide enpirikoetan ikus daiteke ez dela beharrezkoa hauteskunde burgesetan botoen gehiengoa eskuratzeko, eta haren garaipena ez dagoela boto kopuruaren mende

ERREFERENTZIAK

[1] González Calleja, E. (2017) *Asalto al poder, La violencia política organizada y las ciencias sociales*. Siglo XXI de España Editores, Madril, 239. or.

[2] Ibidem

[3] Korabliov, Y. (2023) *Lenin, Fundador de las fuerzas armadas de la URSS y creador de la ciencia militar soviética*. Ediciones Uno en dos, Madril, 17-28. or.

[4] Ulianov, V.I. *El marxismo y la insurrección, carta al Comité Central del POSDR [b]*, 1917ko maiatzaren 13a eta 14a

[5] Neueberg, A. (2013) *La insurrección armada*. Boltxe Liburuak, 46. or.

[6] Neueberg, A. (2013) *La insurrección armada*. Boltxe Liburuak, 46. or. jatorrizko aipamena: V.I. Lenin eta G. Zinoiev: *Contra la corriente*, I. liburukia. 148-149. or. Bureau d'Éditions, Paris

[7] Neueberg, A. (2013) *La insurrección armada*. Boltxe Liburuak, 47. or.

[8] Ibidem

[9] Neueberg, A. (2013) *La insurrección armada*. Boltxe Liburuak, 49. or.

[10] Anweiler, O. (2023) *Los soviets en Rusia 1905-1921*. Ediciones Uno en dos, Madril, 154. or.

[11] Ibidem

[12] Anweiler, O. (2023) *Los soviets en Rusia 1905-1921*. Ediciones Uno en dos, Madril, 154. or.

[13] Lenin, V.I. (2023) *Sämtliche Werke X*, 124. or, XIX, 280. or. jatorrizko aipamena: Anweiler, O. *Los soviets en Rusia 1905-1921*. Ediciones Uno en dos, Madril, 154-155. or.

[14] Anweiler, O. (2023) *Los soviets en Rusia 1905-1921*. Ediciones Uno en dos, Madril, 164. or.

[15] Jarovslavskij E. (2023) *Istorija VKP [b] IV Moscu-Leningrado 1930*, 166. or. jatorrizko aipamena: Anweiler, O. *Los soviets en Rusia 1905-1921*. Ediciones Uno en dos, Madril, 164. or.

[16] *Los bolcheviques y la revolución de octubre, Actas del CC del POSDR [b]*, (1917ko abuztua - 1918ko otsaila). Ediciones Uno en dos, Madril, 118. or.

[17] Anweiler, O. (2023) *Los soviets en Rusia 1905-1921*. Ediciones Uno en dos, Madril, 164. or.

[18] Ibidem

[19] Anweiler, O. (2023) *Los soviets en Rusia 1905-1921*. Ediciones Uno en dos, Madril, 70-71. or.

[20] Anweiler, O. (2023) *Los soviets en Rusia 1905-1921*. Ediciones Uno en dos, Madril, 192. or.

[21] Mawdsley, E. (2017) *Blancos contra rojos, la Guerra Civil rusa*. Desperta Ferro Ediciones SLNE, Madril, 6. or.

[22] Mawdsley, E. (2017) *Blancos contra rojos, la Guerra Civil rusa*. Desperta Ferro Ediciones SLNE, Madril, 5. or.

[23] Anweiler, O. (2023) *Los soviets en Rusia 1905-1921*. Ediciones Uno en dos, Madril, 192. or.

[24] Anweiler, O. (2023) *Los soviets en Rusia 1905-1921*. Ediciones Uno en dos, Madril, 193. or.

[25] Anweiler, O. (2023) *Los soviets en Rusia 1905-1921*. Ediciones Uno en dos, Madril, 200. or.

[26] Lenin, V.I. (2023) *Sämtliche Werke XXI*, 62 or. jatorrizko aipamena: Anweiler, O. *Los soviets en Rusia 1905-1921*. Ediciones Uno en dos, Madril, 194. or.

[27] Stalin, J. (2023) *Werke III*, 142. or. jatorrizko aipamena: Anweiler, O. *Los soviets en Rusia 1905-1921*. Ediciones Uno en dos, Madril, 194. or.

[28] M. Ol'minskij (2023) *Ob ucreditel'nom sobranii Petersburg 1917* 10. or. jatorrizko aipamena: Anweiler, O. *Los soviets en Rusia 1905-1921*. Ediciones Uno en dos, Madril, 194. or.

[29] Iturria: Eley, G. (2003) *Un mundo que ganar*. Crítica, Bartzelona, 180. or.

[30] Iturria: Eley, G. (2003) *Un mundo que ganar*. Crítica, Bartzelona, 291. or.

BIBLIOGRAFIA

Anweiler, O. (2023) *Los soviets en Rusia 1905-1921*. Ediciones Uno en dos, Madril

González Calleja, E. (2017) *Asalto al poder, La violencia política organizada y las ciencias sociales*. Siglo XXI de España Editores, Madril

Mawdsley, E. (2017) *Blancos contra rojos, la Guerra Civil rusa*. Desperta Ferro Ediciones SLNE, Madril

Lenin, V.I. (2009) *El Estado y la revolución*. Público, Madril

Los bolcheviques y la revolución de octubre, Actas del CC del POSDR (b), (1917ko abuztua - 1918ko otsaila). Ediciones Uno en dos, Madril, 2023

Neueberg, A. (2003) *La insurrección armada*. Boltxe Liburuak

Korabliov, Y. (2023) *Lenin, Fundador de las fuerzas armadas de la URSS y creador de la ciencia militar soviética*. Ediciones Uno en dos, Madril



Erabaki

Testua — **Lurdes Ondaro**

Irudia — **Manubeltz**

Badator apirila eta apirilarekin Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak. Lau urterik behingo erriturako dekoratua enkargatuta dago aspalditik. Kaleak bete dira kartekez, non dena delako hautagaia irribarre txiki batekin ageri den foku zuripean. Serio bestela, konfiantza transmititzen, badaki zer egiten ari den. Jende artean agian, hurbiltasuna. Azpian, letra aratzez, “aldaketaren garaia”, “ziklo berria”, “herria”, “etorkizuna”, “orain”, lehenengo pertsona pluraleko aditzen bat. Berdin dio zein alderdi politiko, denek darabilte hiztegi bera. Sareak bete dira mitin zatiz, beteko omen dituzten promesez, jada bete omen dituzten promesez (etxegabetzeak gel-ditu!). Teleberriak bete dira batera eta bestera egindako bisitaz, bostekoz, irribarre faltsuz, elkarri sutsuki aurpegiatutakoez. Hauteskunde kanpaina baino ez. Hauteskunde kanpaina, beste ezer ez. Antzerkia, bere buruaren parodia kasi. Marketina, botoen merkantua, erridikulu nabarmena.

Izenaren eta izanaren arteko amildegian jarraituko du egunerokoak orain arteko bide berberetik. Izan ere, norabide berean doazen bi bidezidorren artean erabakitzea bezalakoak dira hauteskundeak

Badator apirila eta apirilarekin Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak. Igande sakratua igandetean. Demokraziaren festa, denon ahotsa entzungo duten eguna, erabakitze aukera. Tira, aukera, eta, betebeharra. Edo hori dirudi. Nik behintzat askotan entzun behar izan dut: “Botorik ez baduzu ematen, gero ezin zara kexatu”. Beste bertsio bat: “Botorik ez baduzu ematen, gero ez larritu faxismoaren gorakadarekin. Nahiago al duzu Vox?”. Are, afixetan irakurri dugu: “Abstente tú, que ya decido yo. Bozkatzan ez baduzu haiek irabaziko dute.” edo “Que hable la mayoría, vota”.

Erabaki. Hitz polita da, esanahi are politagoa. Askatasunean egiten den ekintza, heldutasunaren dohain eta madarikazio behinena. Zaila da hauteskunde kanpainaren ingurumarian hitz hori sinestea baina. Erabaki mota jakin batzuk onartzen baitira soilik. Bati edo besteari botoa ematea, hori da erabaki posible bakarra. Hau da, botorik ez ematea arduragabekeria hutsa da, zilegi ez den erabakia, erabakia ere ez. Eta botorik eman ezean, zer eta inori norberaren izenean hitz egiteko (erabakitze!) baimena ematen ari omen zara. Eta ondoren agintariak egiten dituztenak kritikatu gero, txar guztien erantzulea zeu: ahal izan zenuenean –apirilaren 21ean, kasu– ez zenuen ezer egin. Badakizu, gauzak aldatuko badira, botoa eman edo ez eman, hori da gakoa.

Eta ezin okerrago egon, baina hori beste gai bat da. Hain hedatuta dagoen pentsamendu honek salatzen duena nahikoa interesgarria da bere horretan. Zorrotz marrazten ditu egin daitezkeenaren mugak eta zeintzuk diren politikan parte hartzeko formak, forma zilegiak eta forma posibleak. Botoa ematea, hauteskundetara aurkeztea, nahi dena: fartsan parte hartzea eta hura zilegiztatzea. Hori da norberaren erantzunkizun politikoaren adierazpen gorena –eman botoa, jokatu erantzunkizunez–. Hortik kanpo, ezer ez. Beste alde batetik, halako nagusikeria moral bat ere badario botorik eman ez duenarekiko –alferkeriarik ez–. Batzuetan badirudi botorik ematen ez duenak inozentziak edo ez duela ematen botorik, ez dakit, ez delako enteratu-edo. Baten batek hauteskundeak zer diren eta bere iritzia ematea zein garrantzitsua den xehe-xehe azaltzea falta izan duela dirudi. Gauzak esateko modu bakarra “EHBildu” edo “PNV” kristalezko kutxatila batean sartzea balitz bezala. Langile kapa zabalaren politika parlamentarioarekiko erabateko indiferentziak ezer ez balio bezala. Falta diren botoen oihera entzun izan ez balute bezala.

Helduko da apirilaren 22a eta hasiko da enegarren “aldaketaren garaia”, “ziklo berria”, “etorkizuna”, “orain”txe bertan. Izenaren eta izanaren arteko amildegian jarraituko du egunerokoak orain arteko bide berberetik. Izan ere, norabide berean doazen bi bidezidorren artean erabakitzea bezalakoak dira hauteskundeak. Bide gurutze bat dirudite, batzuk aldapan gora eta besteak behera, baina sasi artean oraindik ikusi ez arren, 100 metro aurrerago bildu egiten dira berriro.

Eskerrak beste bide batzuk zabaltzea erabaki dugun. Kosta behar zaie entzungor egitea. ●

HISTORIA
ERREPORTAJEA

Sozialistak eta botoak: errepaso historiko bat parlamentarismoaren auziari buruz

*

Nahia Santander



Artikulu honetan, tradizio sozialistaren baitan parlamentarismoaren eta estatu burgesaren inguruan garatutako posizionamendu batzuk jorratzen dira. Horretarako, bi auziren berrikuspen historikoa egiten da: batetik, estatu modernoetako ordena parlamentarioaren eraketa eta horrek XIX. mende bukaerako sozialdemokrazia klasikoaren programa politikoarekin duen harremana; bestetik “askatasun politikoaren” aldeko borrokaren eta programa demokratikoaren inguruko proposamen boltxebikea. Era berean, labur jasotzen da Internazional Komunistaren eta horrek 1920an izan zuen Bigarren Biltzarraren testuinguruan Leninek eta “ezkerreko komunistek” izan zuten eztabaida.

LEHEN ORDENAMENDU PARLAMENTARIOAK ETA KONSTITUZIONALAK

XIX. mendeko azken hamarkadetan, ordura arteko ordenamendu politikoak eredu liberalaren instituzio legal eta politikoetara egokitzen joan ziren pixkanaka. Estatu modernoan politika gidatuko zuten arau parlamentario eta konstituzionalak txertatu ziren; arau horiek, tentsioak eta gatazkak eten ez baziren ere, egonkortasun politikoa bermatzeko gaitasun handia erakutsi zuten. 1870eko hamarkadatik aurrera gobernu forma konstituzional baterantz eman ziren aurrerapausoak. *Belle époque* garaia izan ziren, eta gizarte burgesak konfiantzaz ikusten zuten etorkizuna: mundu mailako ekonomiaren garapenak ez zion ezkortasunari lekurik uzten; kontrara, teknologiaren eta zientziaren zein balio eta espektatiba historiko burgesen garapenerako aukeren miresmena bultzatzen zuen, eta espero zen instituzio liberalek eta legearen inperioak, besteak beste, mendetako aurrerapenarekin jarraituko zutela. Orduan jada bazeuden bozka eskubide zabala zuten hauteskunde sistemak eta gizonezkoen sufragio unibertsala ere finkatua zegoen Frantziako parlamentuan (Asanblea Nazionala), Alemaniakoan (*Reichstag*-a), Suitzakoan (Asanblea Federala) eta Danimarkakoan (*Folketing*-a).

Konstituzioak eta hautatutako asanblea burujabeak bultzatzen bazituzten ere, agintariak ahalegin guztiak egin zituzten botere politikoaren eremu murriztuaren gaineko kontrola mantentzeko, hamaika gotorleku erabiliz

Nolanahi ere, beste estatu askotan aurrerapena apalagoa izan zen. Erresuma Batuan 1867ko eta 1883ko *Reform Acts* direlakoek hauteskunde-oinarria handitzea bultzatu zuten, eta 20 urtetik gorako gizonen artean oinarri hori %8tik %29ra igo zen; Belgikan, 1894an, sufragio eskubidea gizonetzko helduen %3,9tik %37,3ra igotzea lortu zen. Bestalde, konstituzioak eta hautatutako asanblea burujabeak bultzatzen bazituzten ere, agintariak ahalegin guztiak egin zituzten botere politikoaren eremu murriztuaren gaineko kontrola mantentzeko, hamaika gotorleku erabiliz. Esate baterako, 1871ko Bismarcken konstituzio inperialeko ereduari, 25 urtetik gorako gizonen baimendua zuten Alemaniako Parlamentuko behe-ganberan (*Reichstag*) bozkatzea, baina ganbera horren eskubide konstituzionalak mugatuak ziren. Ez zuen inolako kontrolik estatuburuaren gainean, zeinak enperadore edo *Kaiser* titulua mantentzen baitzuen. Kargu hori oinordekotzaz jasotzen zen eta botere ugari zituen; besteak beste, gobernuburua (kantzilerra) izendatzeko eskumena zuen. Botere banaketa azalekoa zen, kantzilerra goi-ganberako (*Bundesrat*) presidentea ere bazen eta. Oraindik ere, bigarren ganbera hori oinordetzako karguz osatuta zegoen zenbait herrialdetan: Prusian eta Austrian (Jaunen Ganbera edo *Herrenhaus*) edota Britainia Handian (Lorden Ganbera edo *House of Lords*). Hautesleku berezi bidezko bozka-sistemak ere mantendu ziren, eta horrek langileek hauteskundeetan zuten pisua minimizatzen edo zuzenean baztertzen zuen; hori zen Finlandiako kasuan gertatzen zena, zeinatan *Dieta* lau estamentutan banatzen zen (zaldunak, kleroa, lurjabeak eta burgesak). Era berean, errolda-sufragioaren arrastoek ere iraun zuten, jabetzari, zerga-kontribuzioari edo gutxieneko alfabetizazio mailari buruzko zantziek, hala nola Belgikan, Italian eta Herbehereetan; Erresuma Batuan, berriz, unibertsitatei aulki bereziak ematen jarraitu zuten.

Modu horretara, ortzimuga politiko izaten jarraitu zuten sufragio zuzen, isilpeko eta unibertsalaren bidez hautatutako ganbera bakarreko parlamentuak ezartzeko programa demokratiko-liberalek. Demokratizazio prozesua hasia zen Mendebaldeko hainbat herrialdetako bizitza politikoa konkistatzen, eta bazirudien beste zenbaitetan ere ate joka zebilela. Horien artean zegoen Errusia tsarista, zeina, 1905eko iraultzaz geroztik, hauteskondeei eta parlamentuari dagokionez berme gehiago ezartzera behartu baitzuten.

SOZIALDEMOKRAZIAREN AIRERATZEA

Marko politiko demokratiko liberalak pixkanaka ezartzea garapen industrial kapitalistarekin batera gertatu zen. Garapen horrek modu masiboan txertatu zuten industriaurreko eskulana ekoizpen dinamikan (batez ere nekazariak eta artisauak), eta langile klaseak hiri eta industria-gune berrietan kontzentratzea eragin zuen. Beste estratu sozial batzuen aurkako klase espezi-fiko bat hedatzeak fenomeno politiko berri bat agertzea ekarri zuen: antolakuntza nazionala eta izate jarraitua zuten langileen masa-alderdiak, beren indarrak zentralizatu eta esparru politikoan eragiteko gaitasuna zutenak gobernuak presionatu edo berenjarduna eremu parlamentarioa zabalduz.

1880ko eta 1890eko hamarkadetatik aurrera, sozialdemokrazia Europa mailako masa-mugimendu politiko gisa agertu zen, nahiz eta haren garrantzia eta gizarte ezarpena ez ziren homogeneoak izan. Gobernu konstituzionalak zituzten herrialdeetan, Britainia Handian eta Frantzia kasu, langile alderdiek zailtasunak izan zituzten indar politiko nagusi bihurtzeko eta leialtasun errepublikarrei zein tradizio liberalei nagusitzeko. Aitzitik, sozialdemokraziak gaitasun handia izan zuen Europa ekialdeko herrialdeetako (Errusia, Balkanak eta habsburgotarren eremu hungariarraren zati handi bat) muturreko errepresiora eta klandestinitatera egokitzeke. Alemana hitz egiten zen Europa erdialdeko lurraldeetan eta Eskandinavian ere nukleo sozialdemokrata indartsua eratzea lortu zuten.

Sozialdemokratek miresmenez jaso zituzten arau parlamentarioen pixkanakako ezarpena eta mekanismo demokratikoen sendotzea, hala nola bozka eskubidearen hedapena. Sufragio hedatua proletarioen "arma zorrotzena" zen, aukera ematen baitzuten baldintza hobeetan sartzeko borroka-fronte berri batean: lehia parlamentarioan. Esparru horretan posizioak irabazteak hau ekar zezazkeen: gobernuen erreformak erauztea, bai ekonomikoak eta bai legearen esparrukoak; berme demokratiko eta eskubide zibil gehiago konkistatzea; parlamentua bera tribuna modura erabiltzea; klase gidarien maniobrak agerian jartzea eta, modu horretara, geruza berrietara heltzea; jarraitzaileak ugartzea; eta gero eta hauteskunde-indar handiagoa izatea.

Ortizimuga politiko izaten jarraitu zuten sufragio zuzen, isilpeko eta unibertsalaren bidez hautatutako ganbera bakarreko parlamentuak ezartzeko programa demokratiko-liberalek

Mitin antolatuek, kontu handiz planifikatutako manifestazioek eta hauteskunde kanpainak antolatu baino gehiago ordeztu egin zituzten altxamenduak eta matxinadak

Programa itxaropentsua zen. Sufragioa handitzea lortu zen leku askotan sozialdemokratek aurrera egin zuten hauteskunde esparruan eta aurrera egite hori ez zen mugatu maizen aipatzen den Alemaniako Alderdi Sozialdemokrataren (SPD) esperientziara. SPDk hainbatetan lortu zituen emaitza egiazki ikusgarriak eta Alemaniako Inperioko alderdi bozkatuena izatera heldu zen –esate baterako, 1912an, bozken %34,8 lortu zuen–. Habsburgotarren Inperioko eremu austriarrean Austriako Alderdi Sozialdemokrata (SPÖ) 1.040.000 boto eta 87 ordezkari lortu zituen 1907ko hauteskundeetan.

Dena den, parlamentuetako aurrerapen horrek muga argiak zituen. Lehena, hauteskundeetako aritmetikaren muga, 1914 aurreko urteetan argi ikusi baitzen iritsiak zirela mobiliza zezaketen gehieneko babes-mailara, hots, kasurik onenean hautesleen laurdena edo herena lortzera. Baina, are garrantzitsuagoa dena: masa-elektoralismoaren politikaren eraginez, alderdiak sistemaren baitan integratu ziren pixkanaka. Mitin antolatuek, kontu handiz planifikatutako manifestazioek eta hauteskunde kanpainak antolatu baino gehiago ordeztu egin zituzten altxamenduak eta matxinadak; horren erakusle da sozialdemokrata alemanek eta austriarrek gero eta nabarmenago arbuiztzen zutela beren antolakundeen egonkortasuna kolokan jar zezakeen parlamentuz kanpoko ekintza oro.

Jardun elektoralista hori gorabehera, ortodoxia sozialdemokrata argia zen. Izan ere, behe-ganberetan zegoen botere maila mugatua zela eta, parlamentuko ordezkariak handi batek ez zuten gobernura edo eragin politikoko posizioetara sartzea bermatzen, eta koherentea zen doktrina sozialdemokrataren oinarria gobernu kapitalistan ez parte hartzea izatea. Baina, hala ere, sozialdemokratek ez zuten kasu guztietan parlamentuko politika mugatua boikoteatu. Batzuetan, gobernu eta alderdi burgesen ekimenei babes parlamentarioa eman zieten. Britainia Handian, Alderdi Laboristak, 1906an jada Alderdi Liberalarekin hauteskunde-koalizioa osatzeaz gain, 1910etik aurrera liberalen gobernua babestu zuen, langile mugimenduarentzat kontrapartida garrantzitsurik eskuratu gabe ordainetan. Italian, Italiako Alderdi Sozialistaren talde parlamentarioak babesturiko gobernu mugimendu sindikalak eta nekazarien altxamenduak bortizki erreprimitu zituzten eta aurrerapausoak eman zituzten karrera kolonialean, Libia okupatuz eta Turkiari gerra deklaratu. Alderdi burgesekiko intrantsigentzia printzipioari uko egitea gero eta praktika ohikoagoa bihurtu zen sozialdemokraten artean; hala frogatzen du Frantzia, Italian edota Suedian ministro-karguak sozialdemokratei hainbatetan eskaini izanak.

ESTATU KAPITALISTAN INTEGRATZEA

1914ra arte, gobernu burgesetan parte hartzeari uko egiten jarraitu zuten, nahiz eta babes parlamentarioa ematea ez zen modu berean zalantzan jartzen. Bien bitartean, kapitalismo gorakorren aldeko baldintzek lagunduta, sozialistek seguru egiten zioten aurre beren etorkizunari; izan ere, testuinguru hark berme konstituzional gero eta zabalagoak, hauteskunde erreformak eta langile klasearekin onberago ziren lege sozialak ekartzen zizkien (hala nola, gizarte segurantzako planak, zahartzaroko pentsioak, lan-poltsak eta gaixotasun- eta langabezia- aseguruak).

Lehen Mundu Gerra hasi zenean, estatu burgesekiko kontziliazio-dinamikaren sustraitzea eta inplikazioak agerian geratu ziren. Europako sozialdemokrata gehienak beren gobernuarekin eta klase agintariekin ezkondu ziren. Hainbat estatuk kontsentsu nazionalistan parte hartu zuten beren aspirazio belizistak zurriztearren, eta langile klasearen interesen defentsaren izenean, aldarrikatu zuten aberria atzerriko erasoetatik babesteak konpentsazioa ekarriko ziela gerra amaitzean. Sozialdemokrata alemaniarrek hainbatetan bozkatu zuten Alemaniako gobernuaren gerra-kredituen alde (*Reichstagean* berretsi behar zen erabaki gutxietako bat). Sozialdemokrata frantsesak, parlamentuan gerra-aurrekontuak onartzeaz gain, gobernuan sartu ziren 1914ko abuztuan, Marcel Sembat eta Jules Guesde alderdiko buruen bidez. Alderdi Laboristako beste hiru kidek (Arthur Henderson, William B. Brace y G. H. Roberts) gobernu-karguak hartu zituzten.

Hala ere, sozialdemokratek ez zuten kasu guztietan parlamentuko politika mugatua boikoteatu. Batzuetan, gobernu eta alderdi burgesen ekimenei babes parlamentarioa eman zieten

Errusiako Iraultzak 1917ko otsail eta urri artean izan zuen garapenak aukera eman zuen gerra-garaietan sozialdemokratek harturiko jarrera orokorra islatzen duten zenbait dinamika ikusarazteko: gobernuak indar sozialdemokraten bidez mantentzen zuten ordena matxinada-egoeretan. Otsaileko altxamenduaren ondoriozko gobernu "oktubrista-demokrata", zeinari boterea transferitua baitzioten gehiengo eserista eta mentxebikea zuten sobietek, berehala sartu zen krisi politiko batean. Orduan, aipatutako alderdiek hari babesa ematea erabaki zuten gobernu horretan sartuz. Hasiera batean gerraren aurkako jarrera erakutsi bazuten ere (mentxebikeak talde garrantzitsua ziren Zimmerwaldeko mugimendu antibelizistan), haiek parte ziren gobernuak alemaniarren eta austriarren aurkako ofentsiba berrartu zuen uztailen. Errusiako langile klaseek eta nekazari gazteek jasan zuten basakeria militarren konplize izan ziren, eta sistematikoki eman zieten bizkarra beren programa politikoaren puntu zentrali, hala nola Asanblea Konstituziogilea eratzeari (mentxebikeen kasuan) eta nekazarien auziari konponbidea emateari (sozialista iraultzaileak).

Alemaniarri dagokionez, langile gatazkak probestu beharrean, SPD gatazkak marko konstituzional berrien bidez bideratzen eta horien erradikalotasuna baretzen saiatu zen zenbait erreforma sozial gauzatu ordena politiko berriaren oinarriak sendotu bitartean. Alderdia 1918ko urri hasieran igaro zen gobernu alemaniarren parte izatera. 1918ko Konstituzioerreformarekin hasi zen trantsizioa onetsi zuten; erreforma harekin, Alemania monarkia parlamentario bihurtu zen. Urte hartako azaroan, Wilhelm II.a *Kaiserrak* abdikatu egin behar izan zuen, eta kantzilerrak Friedrich Ebert gobernuburuari eman zion bere postua –gehiengo sozialdemokrataren buru izan zena azken *Reichstagean*–. Herritarrek gobernu probisional berria onartuko zutela ziurtatu behar zen, eta langileen eta soldaduen kontseiluen zuzendaritza haren mende jarri zuten lortu zuten hori.

1919ko urtarrileko Asanblea Nazionalerako hauteskundeetan SPDk eskuratu zituen boto gehien (%38) eta zentroko alderdiek ondoren (Zentroko Alderdi Katolikoa eta Alderdi Demokratikoa). Horiakin koalizio gobernu bat osatu, eta 1920ko hauteskundeak arte mantendu zen. Ebert 1925era arte estatu-buru izendatu zuten, eta, 1920rako, zenbait SPDko buruzagi izanak ziren gobernuko presidente karguan. Hortaz, sozialdemokrazia alemaniarra agente zentrala izango zen Weimarko Errepublika berrian. Ordea, haren politika erreformistaren atzean estatu kapitalistaren oinarriak berreraikitzeke programa bat ezkutatzeko: iraultza testuinguruan administrazio publikoaren eta epailetzaren integritatea mantentzea eta estatuen gaitasun errepresibo berreraikitzea, boluntarioen miliziak sortuz (*Freikorps*).



Errusiako Iraultzak 1917ko otsail eta urri artean izan zuen garapenak aukera eman zuen gerra-garaietan sozialdemokratek harturiko jarrera orokorra islatzen duten zenbait dinamika ikusarazteko: gobernuek indar sozialdemokraten bidez mantentzen zuten ordena matxinada-egoeretan

SPD ez zen izan gerra bukatzean gobernu burgesean parte hartu zuen alderdi sozialdemokrata bakarra. 1918ko azaro bukaeran, Habsburgo dinastia kargugabetu zutenean eta Austro-hungariar Inperioa zatitu zenean (lurralde hungariarrek eta eslaviarrek estatu independenteak sortu zituzten), sozialdemokratek balizko iraultza demokratiko bat gidatu zuten probintzia austroalemaniarretako muga estuetan. Sozialdemokrazia zen lurralde hartako indar politiko nagusia, 1919ko otsaileko Asanblea Konstituziogilerako bozketak erakusten duenez: sozialdemokratek milioi bat pertsona baino gehiagoren atxikimendua lortu zuten (hautesleen %40,75). Haien babesa batez ere Vienan biltzen zen. Sozialdemokratek koalizio nazional bat sortzea erabaki zuten sozialkristauekin eta pangermaniarrekin, errepublika parlamentario berria indartzeko helburarekin. Nolanahi ere, Austriako estatu berria gidatzeko eginkizunak hila-bete gutxi irauan zien; segituan utzi zioten zeregin hori alderdi sozialkristau handiari.

Hala ere, sozialdemokratek ahalbidetu zituzten konkista sozial eta politikoen benetako garrantzia neurtzeko, gerraosteko testuinguruak sortu zuen aurrerapen iraultzaileko aukerarekin harremanean aztertu behar da. Langile klaseen erradikaltasun politikoa hazten ari zen gerra bukatu aurretik ere. Gizarteko hainbat sektoretara iritsi ziren: soldatapeko langileak eta langabeak, nekazari txiroak eta baita armadako soldaduak ere. 1919an, Hungarian (martxoak 21 - abuztuak 1) eta Bavarian (apirilak 7 - apirilak 15), besteak beste, langileek antolaketa sozial eta politiko independentea eratu zuten: kontseilu errepublikak. Bitartean, buruzagi sozialdemokratek, proletariotzaren aurrerapenaren beldur, berehala jarri zioten galga haien aldaketa-goseari demokrazia parlamentarioaren eta estatu burges berriaren baitan.

Boltxebikeen joera politikoa izan zen alderdi burgesekiko kolaborazionismoa ukatzeari gogor eutsi zion bakarra. Are gehiago, 1917ko otsailean hasitako iraultza burgesa garatzen jakin zuen proletariotzaren eta nekazari txiroen esku zegoen botere politiko bat eratuz: kontseiluak. Horrek, azken batean, eraldaketa sozialista ekarriko zuen. Urriko Iraultza proletarioen esperientzia historiko aurreratua izan zen, eta kontzientzia politikoa zuten sektoreengan katalizatzaile-funtzioa bete zuen aspaldidanik ildo politiko sozialdemokratarekiko eta horien buruzagi kolaborazionistekiko sentitzen zuten ukazioari dagokionez.

Sozialdemokratek ahalbidetu zituzten konkista sozial eta politikoen benetako garrantzia neurtzeko, gerraosteko testuinguruak sortu zuen aurrerapen iraultzaileko aukerarekin harremanean aztertu behar da



ESPERIENTZIA BOLTXEBIKEA

Urriko Iraultza eta, bereziki, boltxebismoak parlamentuarekiko eta instituzio politiko burgesekiko izan zuen jokatzeko modua ulertzeko, ezinbestekoa da hura proposamen politiko bereizi moduan sortu zen garaia aztertzea.

Errusiar Inperioko iraultzaren lehen faseak hartu zuen forma eskubide politiko eta berme zibilik gabeko testuinguru batean jardungo zuen masa alderdi sozialdemokrata handi bat antolatzeko eginbeharrarena izan zen. Prozesu horretan, beharrezkoa izan zen aurreko belaunaldi iraultzailea kritikoki berrikustea (*narodnikiak* eta hainbat talde terrorista); ordea, errepresioa gainditu nahi bazuten, aurreko iraultzaileen bereizgarri ziren ezaugarri konspiratibo batzuk mantendu beharko zituzten. Horrez gain, haien aurkari ekonomizistek ziotenaren aurka, Leninek defendatzen zuen proletarioen emantzipazio ekonomikoaren aldeko borrokak borroka politikoa izan behar zuela. Eskubide politiko eta askatasun zibil batzuk konkistatu gabe (eztabaidatzeko, biltzeko, prentsarako askatasuna, etab.), aurrerapen ekonomiko oro irudimenezkoa izango zen, langile klaseak ahalmenik gabe egongo baitziren estatuaren eta haren administrazioaren auzietan, arbitrariotasun tsaristaren menpe.

Zentzu horretan, askatasun politikoaren defentsa (tsarraren erregimena bukatuko zuen demokrazia burges bat ezartzearen parekoa) puntu zentrala izan zen programa boltxebikean. Alabaina, Europako homologoek ez bezala, ez zituzten beren itxaropenak demokratizazio burgesean jarri. Autokrazia abolitu eta gobernu konstituzional bat ezartzeko nahia izatearekin batera, ulertzen zuten kapitalismoaren baitan esfera politikoa erabat demokratizatzea ezinezkoa zela, eta estratu sozialen artean hori lortzeko erabateko interesa zuen bakarra proletariotza zela.

Posizionamendu horrek gidatu zuen boltxebikeen jarduna 1905etik 1907rako iraultzako urteetan. Fazioak salatu zuen *Bulygin Duma* (tsarrari atxikitako erakunde aholku emailea) ezartzeko proposamena ez zettorrela bat gizarte errusiarrean greba forman piztu zen demokratizazio-nahiekin, eta hura boikot bidez konfrontatzeak aurrerapausoak ematea erraztuko zuela erregimen konstituzional bat eratzera bidean. Dena den, gutxieneko berme demokratiko eta konstituzional batzuk lortu ostean (hala nola langile eta nekazari klaseen boto-eskubidea, nahiz eta oso mugatua izan), parlamentua propaganda politikoa egiteko eta borroka ideologikoa gauzatzeko esparru berri bat bihurtu zen boltxebikeentzat.

Autokrazia abolitu eta gobernu konstituzional bat ezartzeko nahia izatearekin batera, ulertzen zuten kapitalismoaren baitan esfera politikoa erabat demokratizatzea ezinezkoa dela eta estratu sozialen artean hori lortzeko erabateko interesa duen bakarra proletargoa dela

Hori izan zen 1907an boltxebismoaren baitan sortu ziren ezkerkeriazko joeren aurrean Leninek defendatu zuen posizioa. Horrek ez zuen esan nahi dinamika parlamentaria, hauteskunde-lehiara edo aulki-jokora makurtu behar zenik; ez eta gainontzeko alderdi ez-sozialdemokratei kontzesioak egin behar zitzaizkienik edota alderdiaren egitura klandestinoa armadura parlamentario eta legalagatik ordezkatu behar zenik. Kontrara, borroka kultural eta ideologikorako balio zuen edozein zirrikitu mantentzea esan nahi zuen, baita Hirugarren (1907-1912) eta Laugarren (1912-1917) Dumetako testuinguru erreakzionarioan ere, harik eta proletarioen indarrak parlamentu burgesa desgiteko nahikoa potentzia lortu arte. Modu horretara, une erabakigarrian, behin-behineko gobernuak langile klasea kolpatzen zuten gaitzei aterabide bat emateko zuen ezintasunaren ondorioz, boltxebikeek Errusiako eta Europako sozialdemokraten kontrako erara jardun zuten. Izan ere, Langile eta Nekazarien Sobietak gizarte administratzeko organoak izatera iristea zuten helburua, bai eta klase politiko buruzagi bihurtzea ere. Errepublikan Sozialista berriaren helburua 1918ko uztailerako konstituzioak ordezkari politikoak hautatu eta kontrolatzeko eskubide unibertsalaren printzipio demokratikoa egia bihurtzea zen, sobietetako ordezkarien bidez eta langileentzako adierazpen eta bilkura eskubideak lortuz.

Horrek ez zuen esan nahi dinamika parlamentaria, hauteskunde-lehiara edo aulki-jokora makurtu behar zenik; ez eta gainontzeko alderdi ez-sozialdemokratei kontzesioak egin behar zitzaizkienik edota alderdiaren egitura klandestinoa armadura parlamentario eta legalagatik ordezkatu behar zenik

EZKERREKO KOMUNISMOAREN ERREAKZIOA

Ofizialki 1919ko martxoan sortu zen Hirugarren Internazionalaren helburua prozesu iraultzailean aurrera egitea zen, eta, horretarako, Europako komunistei gorputz doktrinal bat ematen zien, independentea eta bateratua eta sozialchauvinisten eta zentristen eraginetik kanpokoa. 1920ko udan, erakunde internazionalaren Bigarren Biltzarrean, borroka formen inguruko eztabaida mahaigaineratu zuten. Aurreko hilabeteetan, garrantzia hartu zuten buruzagi sozialdemokrata ustelduak zeuden fronteetan (esfera parlamentarioan eta sindikatu nagusietan) parte hartzea arbuatzen zuten talde komunistek. Ez zuten galdu Leninen begikotasuna, eta Leninek, era berean, ez zuen galdu talde horiek bere aldera hurbiltzeko itxaropena ere, baina arazo politiko bihurtzen joan ziren Hirugarren Internazionalaren baitan fakzio independente bihurtu ziren heinean.

Idea horiek presentzia izan zuten Alemanian Alemaniako Alderdi Komunista (KPD) eta bere ondorengo eszisia (KAPD) sortu zirenetik; PSI Italiako Alderdi Sozialistan, Amadeo Bordinga zuela buru; tribunista holandarren artean (Herman Gorter, Anton Pannekoek); ezkerreko talde sozialista eta sindikalista britainiarren artean (besteak beste, Sylvia Pankhurst eta William Gallacher); eta Frantzian, Hirugarren Internazionalako Komitean (Fernand Loriot) eta talde sindikalista iraultzaileetan (Raymond Pericat). Bela Kun eta Georg Lukács hungariar komunistak ere joera horren buru ideologiko izan ziren. Talde horiek gorputz organizatibo propioa lortu zuten, Amsterdam eta Vienako "Bureáus" deiturikoak; aipaturiko taldeen eta Internazionalako Komite Ejekutiboaren (Moskun zegoen) arteko lotura modura jardun behar zuten, eta bai Erdialdeko zein Hegoaldeko Europako langile mugimenduekin kontaktuak egin ere. *Kommunismus* astekaria izango zen haien organo nagusietako bat.

Leninek testuinguru horretan idatzi zuen, hain zuzen ere, "Ezkerkeriaren" gaitz infantila komunismoan izeneko obra. Horrekin, Bigarren Biltzarrerera joango ziren ordezkari komunistak interpelatu nahi zituen. Hamarkadetako esperientzia iraultzaileen sintesia eskaini nahi zien modu pedagogiko eta ulergarri batean, eta boltxebismoaren eta auzi parlamentario edo sindikalaren arteko harremanaren inguruko kontzepzio okerrak argitu nahi zituen. Maila ideologikoan, Internazionalaren 1920ko udako biltzarrean jarraitu zuen eztabaidan eta baita geroago ere, biltzarraren erabakiei erantzunez Gorterrekin *Gutun Irekia* idatzi zuenean. Komunisten arteko iritzi ezberdintasuna ez zen ezer berria: boltxebikeak trebatuta zeuden eztabaidan eta ideen talkan, eta ezagun zitzaizkien ebazpen eta panfleto trukea.

Boltxebikeek ez zuten arriskuan jarri nahi 1920ko Biltzarraren osteko hilabeteetan agertzen joan ziren Europako alderdi komunisten hedapen potentziala, eta, hortaz, nola edo hala saihestu behar zuten ezkerreko komunistek hainbat formatan proposatzen zituzten praktika sektarioak garatzea. Horregatik, argipen ideologikoarekin batera, maniobra organizatibo bat egin zuten: Erdialdeko eta Hegoaldeko Europako Bureáus zirelakoak desegin zituzten eta *Kommunismus* astekariaren erredakzio taldea aldatu zuten. Horrela, hamargarren zenbakia izan zen Gorterrekin eta Pannekoekekin idatzitako azkena. Hurrengo zenbakiak Bela Kunen eta Georg Lukácsen posizio antiparlamentarioen aurkako Leninen artikulua bat jasotzen zuen, amaiera ematen ziona komunismoaren baitako desbideratze baten kontrako borroka teoriko eta politikoari.

Boltxebikeek ez zuten arriskuan jarri nahi 1920ko Biltzarraren osteko hilabeteetan agertzen joan ziren Europako alderdi komunisten hedapen potentziala, eta, hortaz, nola edo hala saihestu behar zuten ezkerreko komunistek hainbat formatan proposatzen zituzten praktika sektarioak garatzea



BIBLIOGRAFIA

Europako lehen ordenamendu parlamentario eta konstituzionalen sorrera-testuinguaren inguruan irakurtzeko:

Eley, G. (2002). *Un mundo que ganar. Historia de la izquierda en Europa, 1850-2000*. Crítica
Hobsbawm, E. (1998). *La era del Imperio, 1875-1914*. Crítica

Garai horretako Europako alderdi sozialdemokraten garapen nazionalen sakontzeko:

Cole, G. D. H. (1959-1961). *Historia del Pensamiento Socialista, vol. III-V*. Fondo de cultura económica
Droz, J. (1979). *Historia General del Socialismo, volumen II*. De 1875 a 1918. Ediciones Destino

Errusiako Iraultzaren historia sintetiko baterako:

Carr, E. H. (1981). *La revolución rusa: de Lenin a Stalin (1917-1929)*. Alianza Editorial

Doktrina boltxebikea, hark iraultzaz zuen kontzepzioa, alderdi kontzeptua eta askatasun politikoaren auzia lantzeko:

Krausz, T. (2015). *Reconstructing Lenin. An Intellectual Biography*. Monthly Review Press
Lih, L. T. (2011). *Lenin*. Reaktion Books
Nimtz, A. H. (2014). *Lenin's Electoral Strategy. From Marx and Engels through the Revolution of 1905. The Ballot, the Streets -or Both*. Palgrave Macmillan

Hirugarren Internazionalaren garapena Bigarren Biltzarraren testuinguruan eta ezkerreko fakzio komunisten aurkezpenean sakontzeko:

Hulse, J. W. (1964). *The Forming of the Communist International*. Stanford University Press
Lazitch, B. y Drachkovitch, M. M. (1972). *Lenin and the Comintern*. Hoover Institution Press

Argitalpena

2024KO APIRILA

EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua

**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web

GEDAR.EUS

Sare sozialak

TWITTER ETA
INSTAGRAM

@ARTEKA_GEDAR

Kontaktua

**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza

**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa

**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**

AZPEITIA

Lege gordailua

SS-01360-2019

ISSN

2792-4548

Lizentzia





arteka